



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko martxoaren 10a | XXXVI. urtea | 657. zenbakia



Inaxio PERURENA → 39

Marka berria lortu du

Gehigarri berezia

Ezkontza → 21-34

ARANTZA → 14

Lan gaua ibilaldi gidatua martxoaren 19an

SUNBILLA → 17

Malerrekako eskoletako joku topaketak 22an

LEITZA → 39

Kirol zerbitzua kudeatzeko moduan aldaketa

BAZTAN → 42

Aroztegia proiektuak zer esana ematen segitzen du

Itsaso ELIZAGOIEN BIZENTE | Etxalarko trikitilaria

Trikitixa astinduz Etxalartik mundura

Urteak daramatza Itsasok trikitixari lotuta, afizioa pasio bihurtuta. Ahizparekin bikote osatuta, txapelketa eta erromeriz erromeri ibili da eta orain, Carlos Nuñez gaiteroaren eskutik heldu zaio Europako eszenatokitetara salto egiteko aukera. **ELKARRIZKETA → 3**



Julen PALENZUELA | Beti Gazteko sokatiralaria

Zilarrez jantzia bueltatu da Holandatik

Holandan jokatu den Munduko Sokatira Txapelketan zilarrezko domina eskuratu du 18 urteko lesakarrak, Hego Euskal Herriko tiralariak osatutako Basque Country taldearekin eta 23 urtez beheitiko kategorian. Sokatiran hasi zenetik bi urte pasatu dira eta tarte horretan palmares bikaina osatu du, Nafarroa eta Euskal Herri mailako txapelak lortuz.

KIROLIZKETA → 52



ERREPORTAJEA → 4-5

Zaintza partekatuaren inguruan solasteko, egoera hori bizi duten guraso eta adituekin elkartu da TTIPI-TTAPA.

KULTURA → 46

Euskal Titiriteroen topaketak eginen dituzte martxoaren 19 eta 20an Zugarramurdin. Aurtengoa X. edizioa izanik, hamasei ikuskitun, tailerrak, kontzertuak... antolatu dituzte.

ZOZKETAK → 60



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra.

TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!
Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial
 bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen
 guztirako, etorri gurera.



RENAULT
 Passion for life

RENAULT ocasión **alquiler**
 de vehículos comerciales

SERVICIO POSVENTA Renault
 Renaultek gomendatzen du **elf**

renault.es/posventa

TALLERES SANTESTEBAN, S.A.
 Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

BORTZIRIAK^{SL}
25 urte eskerrik asko guztioi!!!

expert 



**SUKALDARITZA
 IKASTAROAK
 Doan**

Kenwood robotarekin edozein plater oso erraz sukaldatuko duzu

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091
 info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

Ingeniaritza Informatikoko ikasketak egiten ari da Donostian, baina trikitixako botoiak asintzeagatik egin da ezagun 20 urteko etxalartarra. 5 urterekin hasi zen ikasten etxean,

ahizparekin, eta geroztik liluratuta dauka trikitixak, bere egunerokoaren parte izateraino. Urteotan ahizpak eta biek 27na txapel lortu dituzte, eta erromeriaz-erromeria ere bada-

biltza. Urrutirago ere ailegatu da Itsaso: trikitixarekiko afizioak mundu mailan ezaguna den Carlos Nuñez gaiteroarekin European barna kontzertuak ematera eraman baitu.

Itsaso ELIZAGOIEN BIZENTE | Etxalarko trikitilaria

«Gauza haundi batean parte hartu arren, ez dut inoiz atzenduko nondik natorren»

G. PIKABEA | ETXALAR

Nondik sortu zaizu Carlos Nuñezekin trikitixa jotzeko aukera?

Carlos Saura zinema zuzendari ezaguna jotari buruzko pelikula bat grabatzen ari da eta horretarako hainbat artisten laguntza izan du: Sara Baras, Ara Malikian eta Carlos Nuñezena, bertzeak bertze. Nuñezen lana pelikularako Aragoiko jota bat grabatzea zen. Zerbait ezberdina egiteko asmoz, hainbat tokitako melodiak hartuz jota bat egitea pentsatu zuen eta horien artean Euskal Herriko fandangoa sartu zuen. Trikitilari bila hasi eta *Youtuben* ahizpa eta bion bideoak ikusi zituenean, gustatu eta nirekin harremanetan jarri zen. Horrelaxe hasi zen dena. Vigon (Galizia) egon nintzen estudioan grabatzen, ondotik Madriren filma grabatzeko eta orain, Carlosekin kontzertu batzuk ematen ari naiz.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Carlos Nuñezekin jotzeko aukera izatea amets bat egia bihurtzea izan da. Barañainen egin nuen lehenbiziko kontzertua hagitz berezia izan zen: batetik, berekin taula gainean nengoen lehenbiziko aldia izan zelako, eta bertzetik, inguruko jendea ikustera joan zelako. Inoiz atzenduko ez dudan egun horietako bat izan zen. Esperientzia izugarria izaten ari da. Ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Carlos Nuñez gaitero ezaguna (ezkerretik hasita bigarrena) eta bere taldekideak, tartean Itsaso Elizagoien etxalartarra trikitixarekin.

rañaingoaren ondotik gehiagotan jo izan dut eta orain emanaldi gehiago agertzen ari dira. Martxoan Luxenburgo eta Frantziara joatekoa naiz eta ekainean bertze bat eginen dugu Frantziako Tolosan. Aunitz ikasten ari naiz eta betirako ez dela badakidan arren, irauten duen bitartean ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatuko naiz. **Nolako martxa duzue kontzertuetan?**

Carlosek kontzertuak espektakulu bihurtzen ditu eta hortaz, nahiko intentsuak izaten dira. Kanta batzuetan dantzatu, bertzeetan trikitixa jo eta bertze batzuetan trikitixa jo eta dantzatu egin behar izaten dut.

IBILBIDEA

«5 urterekin hasi nintzen trikitixa ikasten etxean. Pandereta klaseak ere adin horrekin hasi nituen. Lehenbiziko txapelketa zazpi urte nituela egin nuen Etxalarren, ahizpa trikitilari nuela. Ordutik hainbat txapelketetan parte hartu dugu, 27na txapel lortuz; baina gehienetan ahizpa panderoarekin eta ni trikitixarekin. 13 urte nituela erromeria talde batean hasi nintzen, ahizpa lagun. Gaur egun, oraindik hor gabilta plazaz-plaza. Bikote formatuan ere jotzen dugu».

Gustura segiko zenuke?

Bai, noski. Carlosek dio berarekin eraman nahi nauela munduan barna kontzertuak ematera. Horregatik bere erreperitorio guztia ikasten ari naiz. Halere, halako gauza handi batean parte hartzea gustatuko balitzait ere, ez dut inoiz atzenduko nondik natorren eta zer naitzen. Ahizparekin eta erromeria taldearekin ere segitu nahiko nuke, horixe delako bizia ematen didana eta gehien gustatzen zaidana.

Zer da trikitixa zuretzat?

Ez dut nire egunerokotasuna trikitixarik gabe imajinatzen. Nazkatuta, hase-rre, nekatuta, triste... bago trikitixa jotzen hasi

eta dena atzentzen zait. Deskonektatzeko tresna modura erabiltzen dut.

Hemendik aitzinera zein asmo dituzu?

Carlosekin ditudan kontzertu horiez gain, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urtero ateratzen duen *Geure Kolkotik* proiektuan parte hartuko dut. Erromeriekin jarraitzeko asmoa ere badugu, bai taldean eta bai ahizpa eta biok bakarrik ere. Etorkizun laburrean, berriz, ikasketak bukatu nahiko nituzke. Carlosekin kontzertu gehiagotan ere gustura joko nuke. Momentu honetan horrelako amets bat lortu ondotik, zein helburu dudan erantzutea ez da erraza, aspaldi nire helburuak bete ditudala iruditzen zaidalako. Baina ahizparekin CD oso bat ateratzea helburu polita izan liteke. **Zerbait gaineratuko zenuke?**

Amets hau betetzeko egin dudan bidea ez dut bakarrik egin. Horregatik esker-erak eman nahiko nizkieke gurasoei bizia emateaz gain, bidearen hasieratik; bidean trabak jarritako pertsoneri horiek ere gaintzen ikasi dugulako; betiko lagunei ni aguantatzeagatik eta bidean egindako lagunei nirekin gelditzea erabaki duzuelako.

GIZARTEA → ZAINZA PARTEKATUA

Aita, ama ala biak?

Bikotearengandik banatu eta seme-alaben zaintza adostu duten hiru lagunekin solastu da TTIPI-TTAPA

Harremana bukatzea erabakitzen duten bikoteen erdiak baino gehiagok seme-alabak dituzte. Tartean haurrak daudenean zaildu ohi dira kontuak, haurren zaintza antolatzerakoan. Gaur egun, guraso gehienek zaintza partekatuaren alde egiten dute.

G. PIKABEA

Urtean mila bikotetik goiti bereizten dira Nafarroan. Halaxe diote Nafarroako Estatistika Institutuaren datuek. 2014koak dira azken datuak eta orduan 1.321 bikote banandu ziren. 2003az geroztiko datuei erreparaturaz, 2013an erregistratu ziren banaketa guttien, 1.102, eta 2006an gehien, 1.566. Banandutako erdiak baino gehiagok seme-alabak dituzte. Lautik batek

seme-alaba bakarra eta bertze lautik batek bi. Bikote harremana bukatu eta tartean haurrak daudenean zaildu ohi dira kontuak, zaintza antolatzerakoan, hain zuzen. Zaintza partekatua-zaintzaren ardura bi gurasoek dutenean-ala banakakoa -bietako batek duenean- izan daiteke. Zaintza eredia edozein dela ere, lehenetsuna seme-alabek izan behar dutela agintzen du legeak.



Bereizi eta seme-alaben zaintza adostu duten hiru lagunengana jo du TTIPI-TTAPAK. Hori bai, benetako izena anonimoan gorde diegu.

HIRU SEME ETA ZAINZA PARTEKATUA

Miren duela bi urte bereizten eta hiru semeen zaintza adostea tokatu zitzaion. Zaintza partekatua dute: «aste batez umeak aitarekin egoten dira eta bertze aste ba-

tez nirekin». Etxebizitzarekin Miren gelditu zen: «etxearekin lotura handia neukalako. Horretarako, etxearen balio erdia bikotekide ohiari ematea adostu genuen. Gaur egun, aunitz kostatzen ari zaidan erabakia da». Bere hasierako asmoa «umeak etxean gelditu eta gu mugitzea zen. Aste bat ni etxetik kanpo eta bertze aste bat aita etxetik kanpo». Baina ez zuten hala egin: «hezitzai-

leak eta terapeutak epe luzera hori kaltegarria izanen zela erran ziguten, eta hortaz, haurrak mugitzea erabaki genuen».

Zaintza partekatua aukeratu bazuten ere, Miren ez da horren aldekoa: «mundu guztia partekatuaren alde dago, baina emakumearen aurka doa. Bakarrik, soldata xume batekin, ezin da gastu guztiei aurre egin».

Bereizi aitzinetik terapia bat egin zuten, eta

Borja MUGICA | Saragueta Aholkularitza, Bera

«Zaintza mota erabakitzerakoan, epaileak beti seme-alaben interesa kontuan izan behar duela dio legeak»

Seme-alaben zaintzan gauzak aldatzen ari direla baieztatu digu Saragueta Aholkularitzako Borja Mugica abokatuak: «orain arte, zaintza eredurik ohikoena banakakoa izan da, bertzerik ez zegoelako. Gaur egun, partekatua onartu zenetik, gero eta gehiago dira zaintza partekatuaren kasuak». Nafarroan 2011n onartu zen zaintza arautzen duen legea: 3/2011 Foru Legea, martxoaren 17koa, seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetarako arautzen duena. Abokatuak xehetasunak eman dizkigu: «zaintza mota erabakitzerakoan, epaileak beti seme-alaben interesa kontuan izan behar duela dio legeak eta guttienez gurasoetako batek eskatu behar du zaintza partekatua izatea». Horrez gain, «epaileak seme-alabek gurasoekiko duten harremana, guraso bakoitzak haurrekiko betebeharrak bete dituen ala ez, gurasoen lan-bizitza kontziliatze-ko aukerak, gurasoen arteko harremanak nolakoak diren eta abar kontuan hartu behar ditu zaintza mota aukeratzeko». Haurren

heldutasun mailaren arabera, seme-alaben iritzia ere aintzat hartu behar du, «12 urte baino gehiago badituzte». Eta «egokiena zaintza partekatua dela erabakitzeko, elkarbizitzarako erregimen bat ezarriko du, gurasoek beraien eskubide eta betebeharrak ekitatez balia ditzaten ziurtatuz».

Zaintza partekatua «aukera ona» dela dio, baina

«gurasoen arteko harremana egokia bada, eta beti ere, argi badute interes bakarra seme-alaben ongizatea dela».

Bere lanean denetariko kasuak ezagutu ditu, eta seme-alaben zaintza tartean denean, «zailena elkarbizitza antolatzea eta betebeharrak ekonomikoak zehaztea izaten dela» azaldu digu, «bien artean duten etxebizitzaren banaketarekin hasita». Benetako kasu bat ere aipatu digu: «Euskal Herrian bizi den batena da. Bere bikotekide ohi alemaniarra da eta bien semea Alemaniara eraman du. Zaintza partekatu ezaren kasu latzetako bat da».

«Zaintza partekatua aukera ona da, gurasoen arteko harremana egokia bada eta argi badute interes bakarra seme-alaben ongizatea dela»

Borja MUGICA,
Abokatu



ondotik, Nafarroako Gobernua zerbitzu baten bidez, bitartekari baten laguntza jaso zuten: «bitartekari honek laguntzeko baldintza bakarra denean ados egotea da, bertzela, banaketa ez da gauzatzen». Mirenen irudiko, «gauza aunitzetan behartua zaude ados zaudela erratera». Dena den, «zailena erabakia hartu eta semei erratea» izan zela kontatu digu. «Egun batzuk beraiek gabe bizitzen ohitzea» ere gogorra egiten zaio.

Mirenen arabera, «konponbide on bat bilatzeko beti batek amore eman behar du, bertzela ezinezkoa da». Bere kasuan, «bertze aukerarik ez zegoelako» adostu zuten zaintza partekatua. «Zaintza partekatuari esker umeek aita irabazi dute. Orain arte ez zeukan denborarik beraiekin egoteko eta beno, alde ona begiratu behar».

BI SEME ETA ZAINZA PARTEKATUA

«Bizitzan aitzinera egiteko haurrek biak behar gaituzte: ama eta aita». Halaxe uste du Leirek. Zaintza partekatuaeren al-

dekoa da, «beti ere inolako indarkeriarik ez bada go». Eta bikote-ohia eta biak banatu zirenean, zaintza eredu hori aukeratu zuten: «arazoa gurea zen, ez haurrena. Gurasoak daude elkarrekin bizi ezin diren egoeran, haurrek ez dute gurasoen arazoa ordaindu beharrik». Azaldu digunez, «beti haurren ongizatea bilatzen saiatu gara, gure ongi eza alde batera utzi eta ustez haurrentzat egokiena zena egiten».

Familia bakoitzaren «errealitatea ezberdina» dela azpimarratu digu, eta era guztietako konponbideak daudela. Euren kasuan, haurrak hamabortzero etxez aldatzen dira, hamabortz egunez guraso batekin eta hurrengo hamabortz egunez bertzearekin daude.

Bereizteko pausua «zaila» egin zitzaiola aitortu digu, baina «momentuotan egoera berri hau onartzea kostatzen» ari zaiola ere onartu digu: «haurrak egunero ikus ditzaket, baina nirekin ez dauden hamabortzaldiak gogorak egiten zaizkit. Etxera joatean bakarrik zaude eta bakardadea gogorra da». Dena den, «mantso-mantso egoera onartzen» ari dela dio, eta «aitzineranoa».

Haurrek «duten errealitatea onartzen dutela» uste du, «ongi ikusi nahi gaituzte eta dagoenarekin aitzinera egin beharra dago. Bueltarik ez duen harreman bat denboran luzatzea ere ez da ona, gehienetan haurrengatik luzatzen da, baina harremana ez bada, etxeko giroa ere ez da ona izaten eta haurrek dena sumatzen dute». Bereiztea erabaki zutenean, Nafarroako Gobernuak bitartekari baten laguntza jaso zuten: «zerbitzu hau erabiliz, hitzarmen erregulatzailea egin genuen».

Momentu «latzak» direla kontatu digu Leirek, «gurasoak beraien arte-

an hagitz haserre dauden uneak», baina garbi du zer den egin behar dena: «beti haurren ongizatea bilatu behar da».

BI ALABA ETA ZAINZA PARTEKATUA

«Bizitzako aldaketa guztiak bezala, hasieran gogorra izan zen, baina denborarekin gauzak hobetzen joan dira». Amaia- ren hitzak dira. Duela bi urte eta erdi banandu zen, eta bi alaben zaintza antolatu behar izan zuten: «Alabekin ahalik eta denbora gehien pasatzeko guztientzat hoberenaz en bidea hautatu genuela»

ZAINZA-PARTEKATUA

«Zaintza-partekatua ez zait egokia iruditzen, emakumearen aurka doa. Soldata xume batekin, ezin da gastu guztei aurre egin»

Miren
Hiru semearen ama

adierazi digu. Izan ere, bere ustez, «posible da» konponbide on bat bilatzeara: «solastean eta irtenbideak bilatu nahi izatean dago gakoa».

Zaintza partekatua egokia ikusten du. Edozein moduz, gaineratu digunez, «kasu bakoitza mundu bat da eta hori horrela den heinean, ez nintzateke ausartuko beti zaintza partekatua %100ean egokiena dela erratera». Euren kasuan, zaintza adosterakoan ez zutela arazorik izan kontatu digu: «Gizarte Zerbitzuen bidez, bitartekari-tza prozesu batean par-

HAURRAK HELBURU

«Nahiz eta une latzak izan eta gurasoak beraien artean hagitz haserre egon, beti haurren ongizatea bilatu behar da»

Leire
Bi semearen ama

te hartu genuen, eta bertze zenbait gaien artean, alaben zaintza adosten lagundu ziguten».

Banaketaren aitzinetik, ordea, «ohituta zauden egunerokoa atzean utzi eta etorriko zenaren beldur» sentitu zela aitortu digu, «umeek aldaketa nola hartuko zuten eta horrek beraien bizitzan zein ondorio ekarriko zituen buruari buelta aunitz eman nitzion». Azkenean, baina, haurrei banaketa ez omen zitzaien «hain arraroa» egin, «lehendik gurasoak banatuak dituzten lagunak badituztelako».

KONPONBIDEA

«Posible da konponbide on bat bilatzea. Solastean eta irtenbideak bilatu nahi izatean dago gakoa»

Amaia
Bi alabaren ama

Diana INIESTA | Erratzuko psikologoa

«Seme-alabentzat funtsezkoa da gurasoek beraiekin duten lotura afektiboa ez dela eten sentitzea»

Gurasoen banaketak haurrek dituzten zenbait jokaera desegoki eta desorekekin erlazio zuzena duela egiaztatzen du Dianak bere kontsultan «agresibitatea, arreata arazoak, hiperaktibitatea... banaketa prozesu baten ondorio izaten dira aunitzetan». Gurasoak banatzen direnean errealitate berri batera egokitu behar izaten dute seme-alabek «gurasoekin erlazioatzeko modu berri bat, familia identitate berri bat... eta zer gertatzen den ulertu gabe edo aldaketari aurre egiteko bitarteko nahikorik gabe, euren mundua aldatzen ari dela ikusten dute». Horren aitzinean ezinbertzekoa da «gertatzen ari dena seme-alabei ongi azaltzea, modu simple batean eta gurasoak eurengandik gertu daudela sentiaraztea». Beraien emozioak azaleratzen lagundu behar zaie «beldurra, errua, bakardadea, guraso baten aldeko jarra... izaten dituzte aunitzetan eta komeni da guzti hori sentitzen duten moduan adieraztea». Hori eginez gero, aldaketa ez da horren bortitza izanen «emozioek ez diete gainezka egiten eta egoera berrira pixkanaka egokitzen joanen dira». Dianaren ustez, «gurasoek seme-alaben ongizatea bilatu behar dute, bikote harreman eten bada ere, betirako izanen baitira guraso». Izan ere, seme-alabentzat garrantzitsuenak ez da gurasoak noiz, non edo nola ikusiko dituzten, «gurasoak gertu eduki eta lehen bezain maitatuak sentitzea baizik».





Nire txanda
Ruben GARATE

Klima aldaketa

1 996. urte ingurua zen, Iruñean Turismoa ikasten nuenean. Geografia irakasle batek, gaiari aditua nonbait, klima ez zela aldatzen erran zigun, «horiek zer egin ez dakien jendearen tontakeriak direla». Garai hartan klima aldaketa zetorrela erraten zen, dena aldatzen ari zela eta bertze hainbat eguraldi iragarpen... Nik ez nekien egia ote zen edo ez, baina nire eta bertze aunitzen ikuspuntutik, ez dute zerikurisik lehen izaten genuen eguraldiak eta oraingoak. Non daude etheen teiatuetatik zintzilik gelditzen ziren hormaziri haiek, eskolarako bidean zurrupatu edo makilekin xilofonoa bezala hausten genituenak? Edo herriko edozein maldatan plastikoa hartu eta eski pistetan goitik beheiti nola ibiltzen ginen... Eta hori ez egun batean edo bitan. Gaur egun, hori egiteko gure inguruko gailurretara igan behar dugu. Baina zerbait aldatu da, ez da berdina, lehen lagunekin eta kuadrillarekin egiten baikenuen eta gehiago gustatzen zitzaigun. Eta hori gaur egun... Hemendik urte batzuetara mugikorrera jausten dugun app baten bidez egin beharko dugu, behar bada. Ez dakit klima aldaketa, eguraldi aldaketa edo zer den, baina ez da lehengoa, inondik inora.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Piruak zebrabidean

I parraldeko herriren batean ahateak, piruak jarri omen dituzte trafikoa zaintzen... Karriken barna autoak abiadura handian dabiltzala eta, azienta hauek libratu eta mantsoxeago ibiliko direlakoan. Erdizka lortu dute helburua, piruren batek zerbitzuan utzi baitu bizitza. *Ixilik, oiloak pixa egin arte!* zioen esaera zaharberritzen baitute gidari aunitzek zoritxarrez: *Tira! Bidean zebra ikusi arte!*

Nabarmentzekoak



Julen PALENZUELA
Zilarrezko domina

Munduko sokatira txapelketan parte hartu zuen lesakarrak. Klub artekoan ez zen tiratu Beti Gazterekin, baina nazio artekoan Euskal Herriarekin zilarra lortu zuen, 23 urtez beheitiko 600 kilokoan.



Inaxio PERURENA
305 kiloko harria altxatu du

Leitzako harrijasotzaileak 305 kiloko harria bizkar gainean berdindu zuen otsailaren 27an sorterriko Amazabal pilotalekuan. Espero baino nekezago egin zuen altxaldia eta marka.



Julio PERUGORRIA
Rubik kuboarekin markak

Elizondon bizi den beratarak Espainiako errekorra egin du Rubik kuboarekin proba 2 segundo eta 28 zentesimatan bukatuz. *Skeewb* modalitatean ere markak ezarri zuen Madril.

Atzera begira → 2006-III-16 / TTIPI-TTAPA 418 zk.



Garferekin debuta egin zuen Xabier Altugarai almandoztarrak

Xabier Altugarai Pierola pilotari almandoztarrak Garfe enpresarekin profesionaletan debuta egin zuen duela hamar urte, apirilaren 1ean Lesakan. «Kolpe handirik ez dudanez, aitzinean tantoa abudo akitzea gustatzen zait» aipatu zion ttipi-ttapari. 1978-79 binakako txapelketan, Antton Maiz aranztarrarekin batera txapelkun izan zen Elias Pierolaren iloba da Altugarai, baina ez zen konparazioen beldur: «Momentuz ez da inor konparatzen hasi. Behin ikusi nuen bere bideo bat eta bi paretak efektearekin arras ongi egiten zituen. Nik ez dut bere bezalako jokoa egiten, nik gantxo eta boleak nahiago ditut» zioen.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirrena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Gezuraren balioa

Pello APEZETXEA ZUBIRI

Egin ez duguna egin dugula erran. Sentitzen ez duguna sentitzen dugula adierazi. Ikusten duguna ikusten dugula ukatu. Gisa horretara jokatzeari deitzen diogu gezurra.

Adibidez. Nafarroako aitzineko gobernuek euskararen alde zeudela erran zuten hainbat alditan, baina... Euskal komunikabideei diru laguntzak kendu zizkieten, euskaltegi eta euskara bizitzen bulkatzeko ziren zenbat eta zenbat erakunderi hartzen zituzten sos pizarrak ukatu! Nafarroako eremu handietan euskara eskolan erabiltzea debekatu. Euskarazko irakaskuntza lanpostua hartzen zuenari, erdarazko lanpostuetarako atekak itxi. Euskara ofizial deklaraturako eremuetan ere zerbitzu publikoko langile erdaldunak onartu. Etabar, etabar. Hori da euskararen alde egon eta aritzea?

Guk ugaritu ditugu herritarrentzat lanbideak, osasungintza hobetu, eta ...Horrela diote behin eta berriz estatuko agintedun eta hurbileko politikaririk, baina...

Soldata neurririk gabe murriztu dira, lanik gabeko eta etxebizitzarik gabeko lehen baino gehiago ikusten ahal ditugu. Erietxeetan sendagileak eta laguntzaileak gutitu dituzte. Hori da irabazbidea ugaritzea eta zerbitzuak hobetzea?

Zertarako balio du gezurrak? Bide laburra duela errana da, lehentxeago edo geroxeago egia jakiten baita. Bai, gertaera batzuen harateko edo honatekoa erabakitzen eta aldatzen ahal du. Erraterako, zenbait hauteskunderen ondorioak alda ditzake. Baina zenbat denborarako? Hurbileko harremanetan zerbait eta momentu edo egun batzuetako jendea engainatzea, bai, lortzen da, nahiz ez beti. Harreman horien iraupena, ordea, noiz artekoa bihurtzen da?

Bizimodu egokirako jende arteko hartuemanen egiazkotasuna nahitaezkoa dela uste dut nik. Nik eta bertze aunitzek, noski. Orduan, nahitaezko den zerbait ukatuz gero, nola bilatzen ahal dugu zorioneko izatea? Zeren eta, azken batean, hori da beste nahi dugun helburua, zorionsu izatea. Zer gertatzen da, bada, gezurti bilakatzen baldin bagara? Geure burua engainatzen dugula? Dударik gabe. Baizik eta ohartu gabe. Hala iduritzen zait.

«Zertarako balio du gezurrak? Bide laburra duela errana da, lehentxeago edo geroxeago egia jakiten baita. Bai, gertaera batzuen harateko edo honatekoa erabakitzen eta aldatzen ahal du. Erraterako, zenbait hauteskunderen ondorioak alda ditzake»

Herri txiki, arrisku handi

Esteban IRUSTA MALLEA

Munduan gero eta jende gehiago mugitzen da, alde batetik bestera. Gehienak lanagatik, behartuta, beste batzuk turismoa egiteko, eta azken denboratan gudatik ihes eginez. Hauen panorama, benetan gogorra izaten ari da. Arazoa handia da eta politikoen portaera penagarria. Konponbidea zaila da, baina Europako agintarien ezintasunak arazoari irtenbidea aurkitzeko denok harritu gaitu. XIX.mendean, milaka etorkin hartu zituen Euskal Herriak. Eta ondoren, urtez urte, etengabe errepikatu da gertaera hau. Gaur egun, gehiago dira jatorria Euskal Herritik kanpo dutenak, bertakoak baino. Inori ez zaio gustatzen herritik kanpora joan behar izatea. Hizkuntza, ohiturak, tradizioak, kultura desberdinekin aurkitzen dira. Beste aldetik, kanpotarrak hartzen dituztenentzat ere ez da atsegina kultura desberdineko jendearekin bizitza partekatzea. Sarritan esaten da kultura desberdineko jendearekin bizitzea aberastasuna dela. Eta neurri batean horrela da. Baina beste aldetik bere arriskuak ditu. Etorkinek ez badira integratzen, ez badute hizkuntza berria ikasten, ez badituzte bertako ohiturak eta tradizioak onartzen arazoak sortzen dira. Toki askotan kanpotarrak nagusitu dira eta etxeko hizkuntza bera arriskuan eta ia desagertzea lortu dute. Ez dago urrutira joan beharrik horrelako kasuak ezagutzeko. Geuk, euskaldunok bizi dugu fenomeno hori. Eskoletan, sasoi baten pentsa ezinezkoak ziren arazoak dituzte une honetan. Francoren agindupean ez zegoen "problemarik". España aldetik etorri zirenak eta bertakoak, denak, hizkuntza bakarrean, gaztelanian irakatsiz eta ikasiz, arazo guztiak konponduta zeuden.

Gaur egun, Munduko toki askotako jendea dator. Kultura desberdineko haurrak eta helduak, eta arazoak ugaritu egin dira. Kasu hauetan guztietan, herri txikiek, nazio txikiek arrisku gehiago dituzte handiek baino. Gu euskaldunok aurkitzen gara kasu honetan. Katalanak jarrera gogorra izan dute beraien hizkuntza defenditzen. Arlo honetan, euskaldunok bigunegiak izan gara eta izaten ari gara. Katalanak gehienbat, beraien hizkuntzan irakurtzen dute. Adin bateko jendeak badu sobera arazoak euskaraz irakurtzen eta ulertzen zailtasunak izateko, zeren zoritxarrez, beraien ikasketak Gaztelako hizkuntzan egin zituen, behartuta. Baina ez da samurra ulertzea gaurko haurrek, eta batez ere, gaurko gazteek eta helduek, 30-40 urtetik beherakoak, ikastetxeetan ikasketak euskaraz egindakoak muzin egitea euskarazko idatzizko munduari. (...) Euskaraz jakiteak zertarako balio duen galdetzen dutenei, erantzuna argia da: Geure hizkuntza delako; euskaldunek milaka urtetan bata bestekin erlazionatzeko erabili dugun hizkuntza delako. Ez dugu behar beste arrazoirik. Hizkuntza batekin gozatzeko menperatu egin behar da. Eta ezin da menperatu hitzegiten eta irakurtzen ez bada. Euskarari eman, eskainiko bagenio gaztelaniari beste denbora; hau da, euskaraz irakurriko bagenu erdaraz beste, ez genuke horrela pentsatuko. Baina gaztelaniaz, erdaldunez inguratuta bizi gara eta hau zailtasun handia da. Panorama honek ahalegin berezi bat eskatzen digu denoi. Sasoi batean euskararen egoera ez zegoen gure eskuetan, baina gaur egun bai. Euskaraz gehiago irakurtzera beharturik gaude. Dena ez da kanpotarren, etorkinen errua.

Irakurleak mintzo

Aroztegia... eta gero zer? manifestua

Sagrario Aleman, Mikel Landa, Jon Alonso, Juan Carlos Longas, Alex Arizkun, Fernando Mendiola, Montxo Armendariz, Aitor Merino, Mikel Baztan, Amaia Merino, Xanti Begiristain, Xabier Morras, Gotzon Bergerandi, Xabi Otero, Joseba Burusko, Javiertxo Oyarzun, Gentz Del Valle Lersundi, Jose Mari Pastor "Artzai", Iñaki Egaña, Xabier Peñalver, Juanxo Egaña, Patziku Perurena, Miren Egaña, Xabier Sagardia, Edurne Elizondo, Miguel Sanchez-Ostiz, Jose Mari Esparza, Jose Antonio Sistiaga, Graxi Etchebehere, Julio Soto, Xabi Garzia, Xabier Soubelet, Benito Goñi, Juan Mari Txoperena, Julia Itoiz, Asisko Urmeneta, Koldobika Jauregi, Begoña Zabala, Fito Jimenez, Martin Zabaleta, Irati Jimenez, Patxi Zamora, Luisillo Kalandraka, Gurutze Ziga, Paula Kasares

Aroztegia, izarrak, zuloak eta haiekin bat egiten duten etxebizitzak. Etxebizitza aunitz, gehiegi agian, luxu eta handikeriez eskarmentua hartua duen aro baterako. Handikeria horiek luze eta zabal ordaindu baitituzte ez haietaz gozaten dutenek, eta etorkizunean ere egiten ahalko dutenek, modu batean edo bertzean haiek pairatzen dituztenek baizik. Aroztegia norendako? Zenbat ordaindu behar da proiektuko enpresa inbertitzaile edo gauzatzaileek berezko negozioa egin dezaten birkalifikazio maltzurra jasan duen landa zoru baten bizkar?

Auzokoen oposizio urte au-

nitzen ondoren, haietan mugaketa eta itxituren inguruko gatatzak, bai eta hirigintzari buruzkoak ere ugari izan direlarik, Aroztegiako jaurreiriari buruzko Lekarozko UGPSa onetsi dute azkenean, eta UPNK utzitako herentzia pozoitua dugu hirigintza plan hori, hau da, erregimen zaharreko proiektio politiko serioa gaurko koalizio demokratiko eta progresistaren gobernuan. Hortaz, ez gara afera juridiko edo negozio partikularrez bakarrik ari. Horretaz gain, afera politiko eta sozialez ari gara, Baztango auzoen komunitate bati, Lekarozkoari, alegia, eta, oro har, haran guztiari, aurretik sumatu daitekeen modu larrian eragiten diotena bere egunerokotasunean eta natur ingurunean.

Nafarroan jauntxokeria eta herri lanetako edo lan sasi-publikoetako negozio publiko, ilun eta neurrigabeko hamarkaden ondoren, deigarri suertatzen da aldaketa sozial eta politikoaren aitzindari izateko lorturiko gobernu batek, gaur horren beharrezkoa denak, Aroztegiako UGPSaren inposizioa modu akritikoan bere gain hartu izana, inposizio politiko garbia, hauteskudeen bezperan fede on juridiko diskutigarriarekin onetsia izan baitzen. Hauteskunde horietan aldaketa soziala etor zitekeela sumatzen zen eta, hortaz, aisialdi eta goi mailako etxebizitzetako makro proiektu horren sustatzaileen babesleak bazterrean gelditzen ahal ziren. Ez dezagun ahantz haranean eraikitako etxe berri ge-

hianak, merkeak ez direnak, saldu gabe daudela (Elbete, Irurita...).

Auzokoen oposizioa izan ala ez, UGPSa baliabide juridikoa da eta, eskuinaren eskuetan utzita, auzokoen borondatea ordeztuko eta aintzat ez hartzeko balio izaten du. Onuraduna ez da harana izan, ezta auzokoak ere, nahiz eta haiei etekin ekonomiko eztabaidagarriak edo etorkizun garbirik gabeko onurak eskaintzen zaizkien. Onuradunak eraikuntza sektoreko enpresak dira, jasaten dugun krisitik onuradun edo minik gabe aterata direnak. Hastapenetik eskala handiko higiezinaren espekulazio negozioa egiten dute eta, negozioa alde batera utzita, horren bigarren mailako etekinak zalantzarazkoak izaten dira, betiere sorrarazten dituzten kalteak baino txikiagoak. "Aldaketaren" politika bitxia dugu hau.

Orain bertan afera da zuzen-zuzenean eragina sufrituko dutenen borondatea behin betiko ez ordezkatzeari (Lekarozko herria eta haran osoa), plataformaren bitartez bere oposizio ahotsa entzunarazi baitute. Eta desiragarria litzateke Geroa Bai buru duen Nafarroako gaurko gobernuaren aldaketarako borondatea ikustea kasu honetan, Aroztegiako jauregiaren makro proiektuak eremu natural zabaleko esku-hartzetaz izugarria baita eta eragin atzerazina izanen baitu.

Gatazka sozial irekiaren, publizitate engainagarriaren eta proiektuaren esanahi sozial du-

dazkoaren aurrean, komenigarritzat jotzen dugu, eta horrela eskatzen, UGPSa geldiarazi eta Baztan haranean herri galdeketa loteslerako deialdia egitea.

Igantziko herriari

Eduardo, Maxux, Jonan eta Neia

Dagoeneko egun batzuk pasatu dira Igantziko herriak bizi izan zuen egun ilun hartatik, sute larri hark Igantziko inguruak erre zituenetik. Egun horietan bizitutako momentu latzak ahaztezinak izango baidira ere, ez dugu inoiz ahaztuko herriko jendeak emandako laguntza ezin hobea.

Horrelako momentuetan ikusten da jendearen prestutasuna eta enpatia.

Ezinbestekoa eta derrigorrezkoa ikusten dugu, gutxienez ohar honen bidez Igantziko herritar guztioi egun horietan egindakoagatik eskerrik beroenak ematea.

Eskerrik asko Igantzi!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
 Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**
 Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Prentsatik bildutakoak



«Artoa pilatzen zen, eta, ez bazenuen agudo zuritzen, artaburu egiten zen berotu, eta kalitatea galtzen zuen. (...) Artoa zuritu ondoren, ematen ziguten tragoa, gero dantza, eta primeran pasatzen genuen. Artaburu beltza tokatzen zitzaionak ondokoari musu eman behar zion. Niri atera eta gustuko mutila ez banuen, beste bati pasatzen nion».

Anita eta Felipa AIERDI
Leitzako baserritarrak
D. NOTICIAS 2016.02.01



«Ardi guztiak jeizteko ordu eta erdi behar dugu eta gero gasnategira joaten naiz, gasna egitera. Bertze lanak, janaria eta garbiketa batez ere, gurasoek egiten dute. Maite eta Paulo nire anai-arrebek kanpoan egiten dute lan, baina larunbateren batean gasna egin, salmentarako prestatu edo feria batera gan behar denean, beti laguntzeko prest daude».

Julen ARBURUA
Artzaina eta gasnagilea
ALBAITARITZA 2016 negua

11 galdera labur

Nor da Jokin Pinatxo?

19 urteko gazte bat, dituen afizioei denbora aunitz eskaintzen saiatu eta horrekin disfrutatzen duena.

Zer litzateke bizitza musikaririk gabe?

Akats haundi bat, musika baita errealitatea erakusteko eta sentitzeko ahalmena, bizitzaren estimulante ikaragarria.

Azken trena taldeko kide... Noiz hartu zenuen trena azkenekoz?

Ez naiz oroitzen jada, ezta azkena den ere, baina ziur nago musikaren tren honetatik ez naizela jaitsiko.

Odolean daramazue musikarako abilezia?

Hori erraten digute. Estitxu arreba, Petti.. Non begiratua badut.

Musikak badu erlaziorik kimikarekin?

Niretzat aunitz! Donostian ikasten dut kimika eta nire pisukidea, klasekidea eta taldekidea ere bada.

Mikro aurrean edo laborategian, non erosoago?

Mikro aurrean agian... laborategian kontu gehiago izan behar da.

Baduzu denetarako denbora?

Non gogoan han zangoa... erran ohi du nire amak eta ez zaio arrazoirik falta.

Larungo antenak zer moduz zabilzate koberturaz?

Ongi, orain ea Bardoak txapel-

ketako bigarren fasea nola joaten den.

Afizio bakoitzak zer ematen dizu?

Kimikak lana eta etorkizuna, bertsoak hizkuntzarekiko aberastasuna eta musikak askatasuna.

Nor miresten duzu?

Musikalki Petti eta Damian Rice, bertsoetan Egaña eta zientzietan Etxenike.

Amets bat?

Kursaalean jotzea.



Jokin PINATXO → Berako gazte saltxeroa

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo
31780 bera(navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BEHOBIA
Pneumatikoak eta zerbitzuak
Marka guztietako gurpilak
nitrogenoarekin puztea dohainik
Mekanika orokorra
(olio aldaketa, frenoak, distribuzioak,...)
Alineazioak
Europa kalea, 18 - ZAISA I (Behobia) IRUN
Telf: 943 63 56 01 E-mail: pneumaticosbehobia@gmail.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAI A IREKIA

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

ANTZUZELAI
S.L.
ZINTARRIAK · ADOKINAK · ZOLAK
Tel. 948 631 317 · Faxes. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertazak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

Arnaud Mante | Berako QuiroVital zentroko kiropraktikoa

«QuiroVitalen kiropraktikaren bidez zure bizi kalitatea hobetzeko lan egiten dugu»

Parisen urte luzez lanean aritu ondotik, berriki hartu du Arnaud Mantek Berako QuiroVital zentroaren ardurara. Bere ustez, «bizkarrezurra da ardatza, bertan dago ongizate orokorrerako giltza» Horregatik, bizkarrezurrean egon litezkeen alterazioen diagnostia egin eta kiropraktika eginez, pazienteen gorputzei euren onera etortzen laguntzen die «gorputza ehuneko ehunetan lan egiteko gai izan dadin».

Zein da Kiropraktikaren oinarria?

Organismoak ongi funtzionatu ahal izateko nerbio-sistemak oztoporik gabe informazioa jaso eta bidaltzeko aukera eduk behar du. Hori hala izan dadin, beharrezkoa da bizkarrezur osasuntsua izatea. Orno edo bertebrearen bat lekuz kanpo badago, nerbioak estutu ditzake eta informazio emaria eten. Informazioa organo batera ez bada ongi iristen, pixkanaka organoak lan egiteko oztopoa izan eta gaitasun bihur liteke.


Osasun orokorrean eragiten du, beraz?

Bai hala da. Bizkarreko minarekin lotzen du hainbatek gure lana, baina haratago doa. Bere lekutik aterata dagoen orno bategaraz organikoak edota desorekak eragin ditzake: migrainak, bertigoa, otitisa, asma,

arnasketa edo digestio arazoak edo arazo ginekologikoak.

Zein teknika erabiltzen dituzue QuiroVitalen pazienteei laguntzeko?

Kontsultara etortzen direnean, hasteko, probakegiten dizkiegu: eskaner bat, pisuan egon litezkeen desorekak begiratu eta nerbio-sistemaren egoera zein den aztertzen dugu. Egoera zein den jakinda, laguntzeko modurik egokiena zein den pentsatzen dugu. Gure eskuak dira gure lantresna, kiropraktika metodo naturala da, botika eta kirurgiarik gabea. Organismoak bere onera etortzeko duen gaitasunean oinarritzen gara. Guk ez dugu ezer tratatzen, gorputza da lan guztia egiten duena. Kiropraktikook bizkarrezur eta nerbio-sistemaren arteko lotura baliatzen dugu, organismoa bera ardurtzen da beste guztiaz.



Arnaud Mante kiropraktikoa eta Inma idazkariak Kanttonberrin dute kontsulta.

Giharrak ere landu ditzakegu, luzaketen bidez adibidez. Batzuetan elikadura desegokia edo estresa dira arazoak. Modu asko ditugu laguntzeko eta pazientearen arbera egokitzen dugu. Egiten dugunak ez du minik ematen.

Zeintzuk dira lortzen diren onurak?

Atzo bertan etorri zen paziente batek aipatu zidan, orain hobeto

lo egiten duela, estres gutxiago nabari duela eta orokorrean hobeki sentitzen dela. Bizkarreko min bategatik etorri zen lehengo kontsultara. Kontua da, guk ez dugula zehazki mina bakarrik lantzen, gorputz guztiarekin lan egiten dugu eta onura ere gorputz guztian nabaritzen da.

Nori zuzendutako zerbitzua da?

Ez dago adin mugarik, gazte, heldu, haur eta jaioberriekin ere lan egiten dugu. Batzuk errendimendua hobetu nahian datoz, bertze batzuk arazoren bat sumatzen du-

HARREMANETARAKO:

Informazio gehiagorako:

T. 948 631403

Kanttonberri, 1-1C BERA

tenean etortzen dira... Jaioberrien kasuan ere komeni da azterketa bat egitea, hainbat arazo ekidin litezkeelako horrela. Ahalik eta jende gehienari lagundu nahi genioke. Gorputzak berez, ehuneko ehunetan lan egiteko gaitasuna du eta horretara iristeko laguntza ematea da gure egitekoa.



OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 12AN

Larretxea anaiak omenduko dituzte Mendiko sagardotegiko kantu bazkarian

Bertsolariak eta kantariak ariko dira eta liburua ere banatuko da

TTIPI-TTAPA

Ibardingo Mendiko sagardotegian Kantu Zahar bazkaria antolatu dute martxoaren 12an. Larunbateko bazkariaren eta bertan banatuko den kantu liburua ere prezioa 45 eurokoa da. Gainera, Patxi eta Donato Larretxeari omenaldia eskaintzeko aprobetxatuko dute.

Partehartzaileak, berriz, Angel Mariezkurrena (antolatzailea), Bankako Menditarrak (abeslariak), Aitor Mendiluze bertsolaria, Franzisko Santxotena (eskujolea) eta Aitor Ibarra Jalisko (tronpeta) izanen dira.

Hiru urtez kantu aforiak egin dituzte eta aurtengo kantu-bazkaria antolatu dute Mendiko sagardotegiak eta Angel Mariezkurrenak.

Izen-ematea 948 630302 edo 670 365011 telefonoetan egin daiteke.

Esnearen Liga

Nafarroako Esnearen Ligako Berako taldearen hurrengo bilera martxoaren 14an, astelehenean 17:00etan egingen dute Beralandetan. *Nola lagun diezadake nire bikoteak haurren edoskitzearekin? Bikotekidearen rola* landuko dute. Bilera irekiak eta doakoak dira, interesa dutenentzat eta haurrak ere ongietorriak dira.

Loreak zineman

Martxoaren 20an, igandea arratsaldeko 7etan Loreak filma ikusgai izanen da Beralandetan.

Ekinox margo erakusketa

Agurtzane Andueztaren *Ekinox* margo erakusketa ikusgai izanen da Kultur Etxean martxoaren 22tik apirilaren 3ra arte. Asteartetik igandera 10:00eta-



UTZITAKO ARGAZKIA

Musika eskolako pianistak sarituak Andoaingo lehiaketan

Otsailaren 20 eta 21ean burutu zen Andoaingo Piano lehiaketa eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako bartzek ikasle sarituak suertatu ziren, beraien lehen parte hartzean. Zehazki, A atalean (11 urte bitarteko haurrak), urrezko domina lortu zuen Ainhoa Elgorriagak. B atalean (12-14 urte) urrezko domina lortu zuen Nahikari Loiarrek, zilarrezko domina Leire Ruizek eta brontzezko domina Asier Ruizek. C atalean, azkenik (14-18 urte), Ainhoa Teiletxeak zilarrezko domina lortu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzaren Eguna

Manttalet eta Ehiza eta Arrantza Elkarteak, udalaren laguntzaz antolatutako Zuhaitzaren Eguna astebete gibelatu behar izan dute aurtengo eguraldiarengatik. Eta asmatu zutela erraten ahal da, otsailaren 20ko eguraldi bikaina lagun, haiztat eta haur eta guraso joan baitziren mendira zuhaitzak landatzera. Zuhaitzak landatu eta gero gosaria izan zuten Ehiza eta Arrantza Elkartean.

tik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (igande arratsaldeak itxita) irekiko dituzte Kultur Etxeko ateak.

Ba al zenekien

Bestak antolatzeko lehen bilera irekia martxoaren 15ean, heldu den asteartean 18:30ean egingen dela Beralandetan.



Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK
DESIN BERA
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinorro, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Saragueta aholkularitza abokatu bulegoa
Felipe Saragueta. Abokatua
· Zuzenbide administratiboa
· Hirigintza
· Sozietateak
· Nazioarteko zuzenbidea
fsaragueta@abokatua.com
Iparralde karrika 5, beheha · 31780 BERA · 948 625 162

Borja Mujika. Abokatua
· Komunitateak
· Herentziak
· Familia zuzenbidea
· Erreklamazio zibilak
bmugica@abokatua.com

xirgil jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

GIZARTEA → 1.156 SOZIO DITU, OTSAILAREN 20KO BATZARREAN JAKINARAZI ZUENEZ

Inoiz baino bazkide gehiago ditu Beti Gazte elkarteak

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko etapa bukaera eta hasieran lagunduko du

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak otsailaren 20an egin zuen urteko ohiko batzarrara. Aurtengo aurrekontua 131.158 eurokoa izanen da eta ekitaldiei dagokienez, urteroko arruntak dira gehienak. Halere, aipatzekoa da apirilaren 6an eta 7an, Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko etapa bukaera eta hasiera hartuko dituela Lesakak eta nola ez, antolaketa lanetan burubelari ariko da Beti Gazte. Apirilaren 6koak Araban abiatu eta komentu inguruan izanen du helmuga. Biharamunekoa Lesakan abiatu eta Orion bukatuko da. Horretaz gain, bi urtetik behin egingen den Lesakako Mendi Itzulia ere aurten egingea suertatzen da. Argazki zaharrekin erakusketaren bat antolatzekeo asmoa ere badu Beti Gaztek.

Hurbilen dauden ekitaldiei dagokienez, johan den urtean hasitako Kostako Bideari berre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hamabi urteren ondotik, Munduko txapelketara bueltatu da Beti Gazteko gizasemeen sokatira taldea. Klub artekoan, 560 eta 600 kiloton lehiatu zen eta ezin izan zuen dominen lehian sartu (600 kilokoan, final laurdenetan kanporatu zuen gerora txapeldun izan zen Irlandako St Pats taldeak). Halere, ez ziren esku hutsik bueltatu, nazioen artekoan zilarrezko domina lortu baitzuen Julen Palenzuela taldekideak. Esperientzia posible egin duten herriko komertzio eta enpresak eskertu nahi izan dituzte tiralariek.

kinen diote Beti Gazteko mendizaleek. Iaz Lesaka-Hondarribia, Hondarribia-Donostia eta Donostia-Zarautz etapak egin zituzten eta martxoaren 20an, Zarautz eta Deba arteko bidea egingen dute. Etapa gehiago ere egingen dituzte eta beraz, aurtengo Bizkaian ere sartuko dira. Bezperan, martxoaren 19an, Zuhaitzaren Eguna egingen dute eta Frain kaxko inguruan, abenduko suteak erretako eremu bati landatuko dituzte zuhaitzak.

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketara lanak aurkezteko epea ere

laister irekiko da, martxoaren 14tik apirilaren 8ra.

1.156 BAZKIDE, INOIZ BAINO GEHIAGO

Joan den urtean, 75. urteurrena ospatu zuen Beti Gazte elkarteak eta horren balantzea egin zuten segidan. Antolatutako ekitaldi gehienak arrakastatsuak suertatu ziren eta diru aldetik ere, gastuak eta sarre-ak berdintzea lortu zuten. Bazkideen kuotei dagokienez, iaz euro baten inguru inguruan, abenduko suteak erretako eremu bati landatuko dituzte zuhaitzak.

diena duela Beti Gazteko gaur egun, 1.156 bazkide: 8 urtetik beheitikoak 28; infantilak (9-14 urte), 108; jubenilak (15-18 urte), 82; helduak 810 eta jubilatua 128.

Zuzendaritza batzordean ere ez da aldaketa handiegirik izan, baina urteetan batzordean lan ezberdinak egin dituen eta iaz 75. Urteurreneko batzordeko buru izan zen Modesto Mariak uzteko asmoa du. Jabier Zubieta oinarritzko futboleko bokalari sartu da, Mikel Oiarzabalaren ordez. Jose Luis Sunundegik segituko du presidente lanetan.

FLASH

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa

Martxoaren 18ra arte zabalik dago Sanferminetako kartel eta azal lehiaketara lanak aurkezteko epea. 6-12 urteko neska-mutikoei ere kontrazal lehiaketara aurkezteko epea. 6-12 urteko neska-mutikoei ere kontrazal lehiaketara aurkezteko epea. Martxoaren 24tik apirilaren 3ra ikusgai eta bozkagai izanen dira lanak Harriondoan. Kartel eta azal lehiaketan 250na euroko saria izanen da eta kontrazalekoan, 100 euroko erosketak bonoa.

Bertso atabikoak edo Norena da basoa?

Tanturumairu Euskal Folklore Taldearen eta Mairu Antzerki Tailerraren eskutik Bertso atabikoak edo norena den basoa? helduentzako antzerkia ikusgai izanen da martxoaren 12an Harriondoan, 20:00etan. Sarreara: 5 euro.

Udaberriko kontzertua

Lesakako Musika Bandak Udaberriko Kontzertua eskainiko du hilaren 18an, 20:30ean Harriondoan. Martxoaren 22an, Musika Eskolak eskainiko du.

Txamukos diska aurkezpena

Txamukos mariatxi taldeak bere lehen diska aurkeztuko du hilaren 19an Harriondoan.

 **trento**
clínica dental
Trento, 8 · DONOSTIA | T. 943 316 944
info@dentaltrento.es www.clinicatrento.com

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

 **BEKO**
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

GIZARTEA → ASTE SANTUAN ETA UDAN

Turismo Bulegoan lan egiteko pertsona bat behar da

Iruñe ELIZAGOIEN

Aste Santuan eta udan Etxalarko turismo bulegoan lan egiteko deialdia zabaldu du Udalak. Lan postuaren zeregin nagusiak jendearen eskaerak asetzeari izanen da eta horrez gain herrian bisita gidatuak egitea. Interesatuak martxoaren 10a arte dute curriculuma aurkezteko epea Udaltxean.

Aroztegia eta gero zer? Solasaldia

226 etxebizitza, 4 izarreko hotela, golf zelaila... Baztango 16garren herria eraiki nahi dutela eta, honen inguruan solasaldia eskainiko du Aroztegia eta gero zer? Plataformak da martxoaren 11n, 19:00etan, Kultur etxean.

Haurrentzako zinea Kultur Etxean

Hartza izan nahi zuen mutikoa filma izanen da ikusgai martxoaren 11n arratsaldeko 5etan Kultur Etxean.

Bautista Mitxeltorena Herri People saioan

Herri herri abilitate bereziak dituzten pertsonak ezagutzen ibiltzen da Ibon Gaztañazpi Herri Peopleko aurkezlea. Otsailaren 24ko saioan Bautista

Mitxeltorena agertu zen arbolak kimatzen. 67 urte izanagatik oraindik hagitx xauli dagoela erakutsi zuen, tximinoak bezala arbolaren puntara igo eta arbol batek bertara jolasean erraz pasatuz.

Gema Arrugaetaren Artzaintza liburua

Abendu hasieran Donostiako Kurtsaalean aurkeztu zuen Gema Arrugaeta argazkilariak bere irudi liburua. Euskara, gaztelera eta frantsesez daude irudien azalpenak eta dokumentala eta estetikoak biak uztartu nahi izan ditu. Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo bere lana aurkezten dabil hilabeteotan. Etxalarko artzainen bat edo bertze ere ageri da liburuan. Eskuragarri dago plazako janari dendan eta inguruko hainbat liburu dendetan.



ARGAZKIA: JON MITXELTORENA

Taloak egiten ikasteko tailerra


Otsailaren 13an frontoian taloak egiten ikasteko tailerra izan zen haur eta helduentzat. Bertako artoarekin, eta bertako errotan egindako irinarekin. Hemendik aitzinera hilero bigarren larunbatean 11:00etatik 13:00etara tailer hau errepikatuko da frontoian. Taloak egiten ikasi nahi duenak, egin eta dastatzeko aukera izanen du, eta ikustera joaten den edonork ere taloak erosteko aukera izanen du.



ARGAZKIA: GEMA ARRUGAETA
Herriko irudiak ere ikusgai daude Gema Arrugaetaren liburuan, hala nola Urri-zokietan ateratako hau.


Ba al zenekien

Ainhoa Telletxea gazteak zilarrezko domina lortu zuen otsailaren 21ean Andoaingo piano lehiaketan, C kategorian, bakarka. Zorionak!

 • Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edanak • Haziak

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA

 NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
ENEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
INGURUMEN ETXALAR
83-60008-848

ETXEZ ETXEKO BANAKETA Inskripzio Zenbakia 1435

 **F. LANCHAS**

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

 **“TELLETXEA”**
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -



John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

ARANTZA

KIROLA → 8 KILOMETROKO IBILBIDEA GAUEZ

Lan Gaua Kontrabandisten Ibilaldi gidatua eginen dute martxoaren 19an

Laugarren edizioa izan dena, Bidasoko Kontrabandisten Bidea elkarteak antolatuta

Nerea ALTZURI

Etxalar, Oiartzun eta Erratzun egin ondotik, aurten herrian Lan Gauda izanen da Bidasoko Kontrabandisten Bidea elkartearen ekimenez, martxoaren 19an. Ibilaldi gidatu hau, 8 kilometrokoa, gauz egingen da eta bertan, garai batean kontrabandoan ibili ziren bi lagun izanen dira gidari. Ibilbidean zehar egingen diren geldialdi laburretan, kontrabando denborako istorioak eta pasadizoak kontatuko dituzte. Arra-

tseko 8etan elkartu, mokadutxo bat jan, (norberak etxetik ekarri dezake janaria) eta ondotik, 3 ordu inguruko iraupena duen txangoa egingen da. Norberak bere linterna ekarri behar du. Parte hartu nahi dutenek, izen-ematea Aterpen egin behar dute eta inskripzioa, 3 eurokoa izanen da, aseguruaren gastua ordaintzeko. Ilargi argitan mendi itzulia egiteko aukera hortxe!

Maiatzaren 13tik 15era mendiaren inguruko jarduerak

Ekaitza elkartearen mendi taldea, maiatzaren 13, 14 eta 15ean izanen diren mendiari buruzko ekitaldiak antolatzen ari da. Aurten gainera, lehenbiziko aldiz, maiatzaren 14an Aran-



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

Zuhaitz landaketa egin zuten eskolako neska-mutikoeak

Joan den otsailaren 17an zuhaitz landaketa egin zuten eskolako neska-mutikoeak. 100 bago inguru landatu zituzten eskolak eta udalak elkarrekin antolatutako ekimenean.

tzako Mendi Laisterketak egingen da. 16,5 kilometroko luzera eta 1.200 metroko malda duen ibilbidea izanen du eta Illurdi, Ekaitza eta Ibintzako kaxkoetan barna iraganen da. Biharamunean, maiatzaren 15ean, bertze urte batez, Arantzako Mendi Itzulia izanen da aintzineko urteetako ibilbi-

de berarekin. Ibilbideak 26 kilometro inguru ditu eta 1.600 metroko malda du. Bi ekitaldi nagusi horiez gain, mendiko zine emanaldia, hitzaldia, haurrentzako jolasak... izanen dira ortziraletan hasita.

Asteburu betea izanen da eta herritarren laguntza ere eskertuko da egun horietan anto-

laturiko ekimenak aitzinera eramateko. Udalak, Mendi lasterketako opariak emanen ditu.

Aitzinerago, xehetasun gehiago emanen ditugu baina, mendigoizale izanez gero...edo asteburu polit bat pasatzeko asmoa izanen gero, zuen agendetan apuntatu ezazue ongi asteburu hau!



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERREKALDE
PLATER KONGINATUAK OSATUA
PINTXOAK
BOKATUAK
TFNoA: 948 630 259 BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN





ARTXIBOKO ARGAZKIA
Joan den urteko proban, oztopoetako bat gainditzen Kirolari ugari.

KIROLA → BIGARREN EDIZIOA ERE IGANTZIN MARTXOAREN 12 ETA 13AN

Gladiators Day egingen dute Irrisarri Land-en

25 oztopo gainditu beharko dituzte 6 kilometro inguruko ibilbidean

TTIPI-TTAPA

lazko lehen edizioaren arrakastaren ondorekin, Gladiators Day lasterketa berezi eta gogorraren bigarren edizioa egingen dute Igantziko Irrisarri Land-en

martxoaren 12 eta 13an. Kirolariek 6 kilometro inguruko ibilbidea osatu beharko dute, 25 oztopo (sokak, lohia...) gaindituz. Probaren leioak dioen bezala, «gairapena bukatzea da».

EUSKALTEGIAN

Hika ikastaroa eskainiko dute

TTIPI-TTAPA

Aspaldiko partez, eta herritar batzuek hala eskatuta, 16 orduko hika ikastaroa eskainiko du Bortzirietako IKA euskaltegiak apirila eta maiatzean. Bi orduko saio hauek gidatzeaz Beñardo Goietxe irakaslea arduratuko da ortziral arratsaldetan. Oinarrizko formak landuko dira ikastaroan, bai euskara batuan bai bertako euskalkian.

Hika ikasteko, berreskuratzeko edo fintzeko interesa duen edonorentzat prestatuta dago ikastaroa; hutsetik hasten direnak ez dira galduko, eta lehenagotik zerbait dakitenek ere aunitz ikasiko dute. Gainera, irakasleak interesgarritzat jo du hika maila ezberdineko ikasleak talde berean egotea, batzuek bertzeengandik ikasi dezaten eta elkarri lagundu diezaioten.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera ibili da IKA euskaltegia elkarlanean, baita Solaslaguna programarekin ere; ikastaroari segida eman nahi diote antolatzaileek, Bortzirietan hikalagun taldea sortuz. Etorkizunean guttienez lagun talde bat astero elkartzea da asmoa, hika solasteko ohiturarik gal ez dezaten.

Ikastaroa Beran edo Lesakan emanen da, eskariaren arabera. Izen-ematea martxoaren 22ra arte egonen da zabalik, eta 948 637 796 telefonora deitu edo bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatzi bertzerik ez da egin behar. Ikastaroaren matrikula 40 eurokoa da eta %75eko asistentzia dutenei ziurtagiria banatuko zaie.

Hika gero eta guttiago solasten delako kezka zabaltzen ari da inguruan, eta horren erakusgarri dira gertu eskainiko diren ikastaroak: Baztango AEK-k 10-12 laguneko bi talde atera ditu, eta Irungo AEKn 15 lagun inguru hasi dira martxoan.

OSASUN TAILERRA

“ASMA ETA ALERGIAK”

ONDOEZA GORPUTZ BARRUAN DAGOEN DESOREKA BATEK ERAGITEN DU. DESOREKA HORREN ONDORIOZ, GORPUTZA EZ DELAKO KANPOKO FAKTOREETARA ONGI EGOKITZEN.

NOLA SAIHESTU ETA HOBETU - GOMENDIOAK ETA ARIKETAK



Arnaud Mante

Mediku Kiropraktikoak eskainia

2016ko Martxoaren 15ean 19:00etan

Lekua

Kanttonberri 1 - 1 C
31780 BERA

Informazio gehiagorako deitu

948 631 403 Telefonora

Deitu berehala izena emateko, TOKI MUGATUAK.

BORTZIRIAK

LEHIAKETAK → APIRILAREN 14RA ARTE BERAN

'Irakurketa instant batean' argazki lehiaketa antolatu dute

Liburuaren Eguna hurbiltzen ari dela-eta, irakurketa islatzen duten argazkiak aurkeztu beharko dira

TTIPI-TTAPA

Liburuaren Eguna hurbiltzen ari dela-eta, Berako Herri Liburutegiak eta Berako Kultur Batzordeak 'Irakurketa instant batean' argazki lehiaketa berria antolatu dute aurten. Gaia, irakurzaletasuna bizitzaren egunerokotasunetan izanen da eta lanak apirilaren 14ra arte en-

tregatu ahal izanen dira.

Honela, irakurketa edozein euskarritan islatzen duten argazkiak (liburuak, aldizkariak, egunkariak, e-bookak...), edozein inguruetan (mendian, base-rrian, hondartzan, autobusean, komunetan, sukaldetan...) eta edozein adinetan aurkez daitezke, irakurtzeko grina edo norberaren garapenean liburuak duten eragina erakusten duten argazkiak.

Lanak koloretan eta xuri-beltzean entregatu ahalko dira eta nahi izanez gero, irudiak digitalki tratatu ahal izanen dira. Lehiaketaren gaia islatzea, originaltasuna, irudimena, sormena eta kalitate teknikoak balo-



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Beratik Goizuetara Agerra mendi taldearekin

Berako Agerra mendi taldeak urtero antolatzen duen Bera-Goizuetara mendi ibilaldia egin zuten otsailaren 20an. Denetara 60 bat mendizalek egin zuten ibilbidea eta Goizuetako Umore Ona elkartearen bapoz bazkaldu zuten. Larunbat arratsaldean ere giro ederrean ibili ziren Goizuetan, musika doinuaren laguntzarekin. Beti bezala, aukera ezberdinak izan zituzten mendizaleek Goizuetara heltzeko. Agerratik eta Aginatik oinez joan ziren batzuk eta bakar batzuk Goizuetara autobusez egin zuten bidea.

ratuko dira. Argazkiak jpg formatuan bakarrik onartuko dira, ez dira onartuko bertzelako euskarritan entregatutakoak. Argazki bakoitzaren gehienezko edukiera 3 Mbkoa izanen da eta erresoluzio minimoa 2000x1500 pikelekoa.

Lehiaketan aurkeztuko diren lanak soilik ondoko helbide elektronikoa honetara bidali ahalko dira: berakoagenda@gmail.com

Lehiakide bakoitzak, gehienez ere, hiru argazki aurkeztu ahal izanen ditu, argazki bakoitzeko mezu bakarria bi-

daliz. Parte-hartzaile batak hiru argazki baino gehiago aurkeztuko bahlitu, lehenbiziko hiruak onartuko ziren lehiaketan. Mezu bakoitzean egilearen datuak (goitzena, izen-abizenak, adina, etxeko telefonoa, sakelekoa eta e-posta) eta lanaren datuak (izenburua, deskribapena...) bidali behar dira. Lehiaketan parte hartuko duten adingabeek eta argazkietan agertzen diren adingabeek euren tutore edo gurasoen baimena izan beharko dute.

Lanak bidaltzeko epea apirilaren 14an,

ortzegunarekin bukatuko da. Sari banaketa, berriz, apirilaren 22an, ortziralea, 17:30ean izanen da. Lehenbiziko saria e-book bat izanen da eta bigarrena liburu sorta bat.

Berako Herri Liburutegiak zein Berako Kultur Batzordeak jasotako argazkiak erabili ahal izanen dituzte publikitate edo kultur promoziorako. Gisa berean, saridunen datu pertsonalak eta irudiak argitaratu ahalko dituzte komunikabideetan eta bi erakundeek kudeatutako web orri edo sare sozialetan.

Baztan-Bidasoan turismoa elkarrekin bultzatzen

Baliabideen gida Gastronomía jardunadiak Bisita gidatuak Turismo feriak

Erreserba zerbitzua

Promozio bateratuak

Bide Berdea

Landa etxeak Apartamentuak Hotelak Jatetxeak Zerbitzu enpresak



Egin zaitez bazkide!

Bisitatu gure web gunea: www.baztan-bidasoa.com | INFORMAZIO GEHIAGO: 948 592 323 (goizez)

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 22AN

Malerrekako herri eskoletako VI. Joku Topaketa herrian egingen dute

Saldias, Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, Narbateko eta Sunbillakoak bilduko dira

Maider PETRIRENA

Malerrekako Herri Eskoletako VI. Joku Topaketa egingen da martxoaren 22an Sunbillan eta Malerrekako sei eskola ttikietako (Saldias, Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, Narbarte eta Sunbilla) ikasle, irakasle eta gurasoak elkartuko dira.

Goizeko 9:45ean zakurren erakustaldia eta herri kirolak izanen dituzte. 10:45ean gosaria. 11:30ean berriz ere herri kirolak eta zakurren erakustaldia. 12:45ean bazkaria eta 14:00etan, DJ Porrurekin dantzan eta kantuan aritzeko aukera.

Ulibeltzak batzar orokorra

Martxoaren 19an Ulibeltzak Elkarteak urteko batzar orokorra egingen du arratsaldeko 7etan. Aurreko aktaren onspena, 2015eko kontuak, bazkide berriak, junta berriaren au-



ARGAZKIA: JOKIN PETRIRENA

1959-1960an jaiotakoen kinto afaria

Herriko kinto bestak martxan daude gaugero. Urtero bezala 1959-1960an jaiotakoak izaten dira hasiera ematen diotenak. Hauek otsaileko azken larunbatean ospatzen dute eta aurten otsailaren 27an suertatu zitzaizen. Hemeretzi lagunek afari ederraz gozatu zuten.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Ulibeltzak mendi taldeak Adira irteera

Ulibeltzak Mendi Taldea otsailaren 21ean Adira joan zen, elurraz eta bista ikusgarrietaz gozatzera.

keraketa eta akitzeko eskariak-galderak.

ditugu herriko musulari fin hauek.

Euskal Herriko mus txapelketa

Otsailaren 20an Iruñeko Arrano elkarteak Zazpi herrialdeetako mus txapelketaren finalak jokatu ziren. Herriatik lehendabizian lehengo bikotea joatekoa zen baina azkenean lehen bi bikoteak (Itxegi-Joxe Martin eta Joxe Miguel-Joxe Luis) musean aritzeko aukera izan zuten. Aurrerago segitzeko aukerarik ez izan arren, zorianduko

Artopil jatea eta monologoa

Martxoaren 11n, orztziraletan Bustitz ostatuan artopil jatea (20:00etan) eta Etxenikerekin Gilaren bertsoak monologoa (22:00etan) antolatu dute.

Zazpi ikasle berri

Aurrematrikula datuen arabera, 2016-17 ikasturtean zazpi ikasle hasiko dira eskolan, baina 12 joanen dira Donostetara DBH-1era.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Arkupeak elkartaren herriko besta

Sunbillako Arkupeak Elkarteko bazkideen besta otsailaren 28an ospatu zuten. Meza ondoren mus txapelketa izan zuten Aritzigain kanpinean eta jarraian bazkaria. 39 bazkidek aukera izan zuten egun ederraz disfrutatzen. Zortzi bikotek parte hartu zuten musean eta irabazleak (argazkian ikusi daitezkeen bezala) Itxegi-Juana Mari izan ziren. Bigarrenak, Estefani-Gregorio anai-arrebak, Hirugarrenak Juan Pedro-Jose Miguel eta laugarrenak Juan Antonio-Frantxisku.

Ba al zenekien

Udalak antolatu zuten Inauterietako bosgarren Argazki Lehiaketako txapeliduna Ruben Irigoien Jorajuria izan dela. Zorionak.

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

DONEZTEBE

GIZARTEA → MARTXOAREN 16RA BITARTE

Askin haur eskolaren aurrematrikula zabalik da

Martxoaren 10ean Bernard Martinoren dokumentalaren zati bat eskainiko dute

Marga ERDOZAIN

Martxoaren 5ean ate irekien jardunaldia egin ondoren, 2016-17 ikasurterako aurrematrikula martxan jarri du udalak. 0-3 urte bitarteko umeendako zerbitzu hau erabili nahi duten familiak udal bulegoetatik pasatzen ahal dira informazioa eta dagokion dokumentazioa eskatzeko. Askin Haur Eskolak D eredu eskaintzen du. Familiak eskola-egun osoa (jantokia barne) edo eskola-egun erdia (jantokia barne) aukeratu ahal dute. Aurrematrikula bukatu ondoren, udalak eskaerak aztertuko ditu eta behin-behineko



UTZITAKO ARGAZKIA

0-3 urte arteko neska-mutikoei eskaintzen die zerbitzua Askin haur eskolak.

zerrenda kaleratuko du. Maiatzaren 20tik aitzinera behin betiko matrikula burutu da. Ikasurte berria heldu den irailean hasiko da eta 2017ko uztailaren erdialdera bitarte luzatuko da. Prezioei dagokierik, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak haur eskolak arautzeko ezarritako irizpideak jarraituz finkatuko direla,

aurreko ikasurteetan egin den bezala.

DOKUMENTALA

Aurrematrikularen barrenean Askin eskolan Bernard Martinoren *Loczy: una escuela de civilización* dokumentalaren zati batzuk pantailaratuko dira. Hitzordua martxoaren 10ean (ortzeguna) arratsaldeko 5etan izanen da. Fil-

ma aitzakiatzat hartuta, Askingo lan taldeak herritar guztiei dokumentalean agertzen den pedagogiaz aritzeko aukera zabaldu nahi die. Beraz, hitzordu polita 0-3 urte bitarteko umeak dituzten familientzat. Hori bai, egun horretan txikiek etxean gelditu beharko dute emanaldia eta solasaldia emanokorra izan dadin.

FLASH

'Gurasook erran behar ez ditugun esaldiak' hitzaldia

Gurasook erran behar ez ditugun esaldiak izeneko hitzaldia Carmen Nietok eskainiko du. Hitzordua martxoaren 10ean (ortzegunean) 14:50ean Mendaur Institutuan izanen da. Mendaur eta Erreka Guraso Elkarteek antolatutako prestakuntza programaren azkeneko hitzordua da. Ikasurte honetan Carmen Nieto, Herriko elkartearen psikologoa zuzendutako bertze hiru hitzaldi burutu dira: *Dolua: gaixotasun, heriotza eta bertze gale-rra batzuen aurrean*; *Nola landu amorrua eta haserre* eta *Seme-alaben jokabide desafiatzailearen aurrean aritzeko moduak*.

Gizarte larrialdietarako laguntza

Pobrezian edo behar handian dauden familia eta pertsonak laguntzeko gizarte larrialdietarako laguntzak zehazten dituen ordenantza onartu du Mallerrekako Mankomunitateak.

MARTXOKO AGENDAK MENU ANITZA ESKAINIKO DU

Emakumearen Egunaren inguruko hondar ekitaldiak, Xabierretera ateraldia, ikuskizunak, zinema, kontzertuak, Ipuin Orduak eta Mindegia eta Otañoren arteko aizkora apustua

M. ERDOZAIN

Martxoko agendako menuaren sarreak Emakumeen Eguneko ospakizunekin osatu dira: Firin-farandula antzerki taldearen bakarrizketen emanaldia (martxoaren 8an); Ortziralean, **martxoak 11**: kalejira eta 20:30ean Kasinon Mendi abesbatzaren emanaldi berezia. Ondoren, Herriko ostatuan afora izanen da. Aste osoan Herriko ostatuan bertako hainbat emakumek egindako lanen erakusketa ikusgai izanen da.

Sarrera horien ondoren, aukera anitza izanen dugu doneztebarrok: **mar-**

txoren 12an (larunbata) Errekak Xabierretera joateko ateraldia: **martxoaren 13an** (igandea) *Ene Kantak baietz dantzan hasi* ikuskizuna kiroldegian arratsaldeko 5etan. Ipuin txokoaren hitzorduak **hilarren 15 eta 22an** izanen dira, asteartetan 10:30ean. Martxoko Ipuin Ordua, berriz, **martxoaren 16an** (asteazkenean). Zinema emanaldiak ere burutuko dira: **martxoaren 20an** (igandean, 16:30ean *Pan* filma eta 18:30ean *Bad teacher* filma) eta **martxoaren 26an**, larunbatean, arratsaldeko 7etan *Ocho apellidos catalanes* ikusteko aukera izanen da.

Agenda gustagarri hau borobiltzeko, San Jose egunean, **martxoaren 19an**, larunbat arratsaldeko 8etan San Pedro elizan Iruñeako Orfeoia Txikiaren bisita izanen da. Asteburu horretan gure eskualean egonaldia burutuko dute eta gurean kontzertu ederra eskainiko dute.

Martxoaren 20an, igandean 12:00etan aizkora apustua Ezkurra pilotalekuan. Mieltxo Mindegia eta Eneko Otaño nor baino nor ariko dira, 6.000 euroko sari gustagarri eta potoloa eskuratzeko helburuarekin. 12 kanaerdiko eta lau 60 ontzako lana izanen dute aizkolariek.

NATURA → ARRANTZA DENBORALDIA MAIATZAREN 1ETIK EKAINAREN 30ERA

Arrantzako araudi berriak amuarraientzako babes handiagoa eskainiko du

2015eko amuarrainaren zenbaketaren arabera, 1992. urteaz geroztik populazio-maila txikiena dauka orain espezieak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ingurumen Batzordeari heriotza bidezko amuarraientzako mugatzeko proposatu dio maiatzaren 1etik ekainaren 30era egingen den 2016ko denboraldirako, 2015eko amuarraientzako populazioa

1992. urteaz geroztik dagoen tikiena dela jakin ondotik (1.183 ale hektareako, 2014an baino %16 guttiago eta baino %60 guttiago).

Zehazki, Arrantzaren Aholku Batzordearekin adostutako Ingurumenaren proposamena da sasoi honetan arrantza-le bakoitzak izanen dituen baimenak bi jardunalditara mugatzea, eta arrantza dezakeen amuarraientzako bira mugatzea jardunaldi bakoitzeko (iaz, 5 baimen eta 3 amuarraientzako zegoen).

Nafarroako Gobernuak heriotzarik gabeko arrantza-modalitatea sustatu nahi du eta Arrantzarako bi kirol to-

ki berri sortu dira Araxes eta Urumea ibaietan, aldi berean arrantza eta askatzeko gune direnak. 16 urtez azpiko adingabeek hirigunetan arrantza ahalko dute, arrantza eta askatzeko modalitatean irekita geratutako arroetan.

Nafarroako Gobernuak egindako proposamenak amuarraientzako eusten dio, erazpen-modalitatea, eta honako era honetan banatuko dira Nafarroako arroetan: Baztan-Bidasoa, 5.376 baimen; Oria-Urumea, 4.667; Urederra, 127 (Zudaireko barruti naturala, 71); eta Argal-Ultzama, 684 (Eugiko barruti naturala, 284).



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Izokin denboraldia maiatzaren 1ean hasi eta uztailearen 31n bukatuko da, edo 81. izokina ateratzen denean.

Aipatuenez, Araxes eta Urumean heriotzarik gabeko arrantzarako mugatutako bi gune sortu dira, eta Ezkurra ibaiko zati bati eusten zaio arrantzaren prestakuntza-eskolarako gune modura (Donezteben, Ezkurra eta Ezpelura ibaietako zubi arteko 700 metro dira). Eta 16 urtez azpikoek, gune horietan doan arrantza ahalko dute, gazteen artean modalitate hori sustatzeko.

81 IZOKIN

Izokinari dagokionez, aurtun Bidasoan arrantza ahalko diren 81 aleko gehieneko kupoa ezartzen da (83, 2015ean). *Multinvierno* izokinak babesteko neurri eusten zaie, 2015ean adostu eta onartutakoak. Sasoi maiatzaren 1ean hasi eta uztailearen 31n bukatuko da edo lehengo, arrantza egiteko baimendutako kopurua osatzen bada.

An advertisement for Casa Cambra. It features a photograph of a purple flower and a lantern. The text reads: "1951tik Casa Cambra lentzeria-etxea Merkealdia (azken egunak)". At the bottom, it lists products: "edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak" and provides contact information: "Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634".

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Merkealdia
(azken egunak)

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ARKUPEAK

GIZARTEA → HERRIETAKO BAZKIDE EGUNAK EGINEZ

Festarako eta muserako tartea izan dute bazkideek

Xabierrera irteera egin zuten martxoaren 8an

Fernando ETXEBERRIA

Data hauetan ohikoa izaten da herrietako bazkide egunak ospatzeko. Eratsungoak izan ziren goiztiarrenak, urtarrilaren 24an ospatu zuten eta. Ezkurran bazkaldu zuten eta mus txapelketan Javier Des-karga eta Migeltxo Elizalde osatutako bikotea izan zen irabazlea. Eratsungoen ondotik, bertze herrien txanda ere iritsi da. Otsailaren 7an Arantzan ospatu zuten besta eta Bonifacio Oskoz eta Pantaleon Errandoneak jantzi zuten txapela. Egun berean, Irun eta Berakoak ere elkartu ziren eta Juana Maria Arnis eta Juan Carlos Altzuguren

izan ziren musean bikote hobereana. Otsailaren 14an, Beintza-Labaien eta Saldiasokoek ere ospatu zuten euren eguna, baina mus txapelketarik ez zen izan. Goizuetan otsailaren 18an Juan Jose Apezetxea eta Isabel Etxeberria izan ziren irabazleak. Baztangoiza, Urdazubi eta Zugarramurdiko bazkideak Arizkunen bildu ziren otsailaren 18an eta Alejandro Cordoba eta Jose Iturralde izan ziren irabazleak. Biharamunean Igantziko txanda izan zen eta Severiano Retegi eta Ramon Retegik lortu zuten txapela. Otsailaren 20an Legasan egin zuten hitzordua Berroeta, Almandoz, Aniz, Ziga, Arraiotz, Oieregi, NARBARTETA eta Legasakoak eta Luis Mari Elizaintzin eta Angel Sarratea izan ziren irabazleak. Donetztebe, Donamaria,



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Ezker-eskuin eta goitik beheki, Leitza, Arizkun, Legasa eta Elizondoko bazkideak, bakoitza bere herriko bestan.

Gaztelu, Oitz eta Urrozkoak Donezteben elkartu ziren eta Miguel Juana eta Juan Luis Juanenak lortu zuten garaipena. Egun berean, Leitza, Areso eta Larraungoek ere bazkaria egin zuten Leitza eta Jose Mari Elizalde eta Eusebio Zelaietak lortu zuten txapela. Ituren, Zubieta eta Elgorriagakoek ere izan zuten bere festa. Elbete, Lekaroz, Gartzaiz, Irurita Elizondokoak otsailaren 26an elkartu ziren eta Tomas Torres eta Juan Larre izan ziren irabazleak. Sunbillakoak otsailaren 28an egin zuten euren besta eta Jose Mari Arretxea eta Juan Mari Agirrek osatutako bikotea izan zen muse-

an nagusi. Beraien eguna ospatzen azkenak Ezkurakoak izanen dira, martxoaren 27an egin dute hitzordua.

XABIERRERA IRTEERA

Martxoaren 8an 122 bazkide Xabierrera irteera egin zuten. 17an Donezteben mus txapelketako finala jokatu da, eta herri bakoitzeko bikote irabazleek parte hartuko dute, baina bigarren eta hirugarren postua lortu zutenek ere. 92 bazkidek parte hartuko dute. Martxoaren 31n 291 bazkide Donostiarajoketeoak dira eta Aquiruma, San Telmo museoa... bisitatu eta alde zaharretik ere bueltak emanen dute. Gero

13:30ean Aginagako sagardotegira joanen dira, bazkaldu eta dantzaldiaz gozatzera.

EUSKAL KANTUEN JAIA DANTXARINEAN

Aurtengo berrikuntza Dantxarinean ospatuko den Euskal kantuen jaia da. Ahalik eta bazkide gehien elkar-tzea dazuzendaritzaren asmoa, 400 pertsonen-dako tokia baitago jabetxean. Bazkide ez direnei ere emanen zaie bertaratzeko aukera. Bazkideek martxoaren 7, 8 eta 9an dute izen emateko aukera eta bazkide ez direnek 10 eta 11n. Denei, jabetxean erakutsi beharko duten txartela emanen zaie.

"Badakit beti alboan izango dudala"

Mercedes
IRAKASLEA ETA
GAES-EKO BEZEROA

Silvia | ORAIN DELA 7 URTETATIK MERCEDESEN AUDIOPROTESISTA

MARTXOAREN 20 ARTE
%25-EKO DESKONTUA
AUDIFONOETAN

Kontsulta itzazu zure zentzuan kanpataren ezaugarriak.

ENTZUMEN AZTERKETA DOAN DEITU ETA ESKATU TXANDA

Mendibil merkatal gunea
Tel.: 943 63 99 10
irun@gaes.es
IRUN

www.gaes.es

JEREZ
CAPITAL MUNDIAL DEL MOTOCICLISMO
www.jerezcm.es

GAES
Entzumen Zentroak

R.P.S. Nº 45-56/10.

EZKONTZA GEHIGARRIA

- ILERAKO APAINGARRIAK
- ANDREGAIENTZAKO JANTZIAK
- BITXIAK
- SENARGAIENTZAKO JANTZIAK
- LORE SORTAK
- GONBIDAPENAK
- MUSIKA
- OPARIAK
- ARGAZKILARIAK
- ORRAZKERA, MAKILLAJEA
- BIDAIAK
- JATETXEAK, MENUAK



Presta zaitezte eta ospatu gurekin
zuen ezkontza



Tratamentu bereziak ditugu
zuen egun berezi honetarako



ANDREGAIENTZAKO ZERBITZU OSOA
 Ile-apaindegia
 Aurpegi tratamenduak
 Gorputz tratamenduak
 Manikura
 Pedikura | Makillajea

Amaya Picabea
 CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

Ameztiá · DONEZTEBE · 948 450 163 · centroamaya@zarbo.net 

ILERAKO APAINGARRIAK

Osagarri eta bereizgarri

Geroz eta andregai gehiagok aukeratzten dituzte ilerako apaingarriak euren orrazkera osatzeko. Zintak, zapi dotoreak, bitxiak, lorez apaindu-tako koroak, diademak... aukera zabala da. Ilea bilduta edo solte eraman nahi dutenek, adats luzea edo motza dutenek... denek izanen dute ukitu berezia lortzeko modua, hamaika diseinu baitaude aukeran.

Ileapaintzaile eta saltzaileen aholkuak entzun eta bata eta bertzea probatzea garrantzitsua izaten da horrelakoetan, ustekabe atseginak ere izaten direlako. Pieza bakarra eta pertsonalizatua nahi dutenek, enkarguzko lanak egiten dituzten artisauek eta bitxigileengana ere jo dezakete.




MARRIED
novias
 Cipriano Larrañaga 4 • IRUN
 T. 943 619 237
 marriedirun@hotmail.com
 Married Novias

EMAKUMEENTZAKO JANTZIAK

Neurrira egindako jantzi berezia

Ezkontza batean isilpean gordetzen den sekreturik bada, hori emaztegiaren soinekoa izaten da. Ongi hartu beharreko erabakia da, batzuek hasieratik argi izan eta bertzei gehixeago kostatzen zaiena. Hori bai, erabakia hartzeko unean, denboraldiko tendentziei erreparatzen diete andregai gehienek. Aurtan, **tatuaje itxurako bizkarraldeak** eta **diseinu asimetricoak** aurkeztu dituzte diseinatzaileek dotorezia eta sentsualitatea lotuz. Estilo erromantikoa gustuko dutenek, **bihotz formako aurrekaldeak** eta **bolumen dezenteko gonak** izanen dituzte aukeran. **Crop top** estila da indartsu datorren bertze aukera, top bat diseinu bereziko gona batekin konbinatzea, alegia. **Itxura bohemioa** maitate dutenek ere aukera zabala topatuko dute: tunika itxurako soineko zabalak, soineko arinak...

Bordatuak, tulak, tatuaje itxuran egindako xehetasunak... erabili dituzte diseinatzaile guztiek euren diseinuak borobiltzeko.



BITXIAK

Eraztun batean, bien lotura

Ezkontza ospakizuna mota batekoa edo bertzekoa izan, guztietan eraztunak trukatzeko ohitura izaten da. Eraztuna erosteko orduan, ezinbertzekoa da bakoitzaren estiloa kontuan hartu eta egunerokoan erraz jantziko den bitxia aukeratzea. Milaka diseinu, material aukera zabalak... eta gainera zenbait bitxi-dendetan diseinu pertsonalizatuak ere egiten dituzte.



GIZONEZKOENTZAKO JANTZIAK

Dotorezia janzkietan bilduta

Gizonezkoen artean, geroz eta gehiago dira, ezkongai zein gonbidatu, trajearen aldeko apustua egiten dutenak. Azken urteetan kolore urdina nabarmendu da gizonezkoen janzkietan eta aurten ere beltza, zuria eta grisarekin batera gehien ikusiko den tonua da. Ausartagoak direnentzat, kolore biziagoak, estanpatuak eta janzki marradunak ere proposatzen dituzte adituek.

Osagarriak

Osagarriek ere garrantzia handia dute, zilar koloreko gerrikoak, erloju handiak, gorbatak... Senargai baten eta gonbidatuen janzkeraren artean bereizgarria den elementua ere ezin aipatu gabe utzi: txalekoa. Diseinu gurutzatuak eta asimetrikoak daude modan, botoi bat, hiru edo lau dituztenak. Txalekoaren tonu eta ehuna kontuan hartuta, kontrastea egiten duen osagarri bat jartzea gomendatzen dute. Gorbata zabalak, geroz eta senargai gehiagok aukeratzen dituzte bolumenekin jokatzeko aukera ematen dutelako.



Zuen gustuko ezkontza-eraztunak egiten ditugu

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

JUAN J. PIKABEA

SENARGAIENTZAKO TRAJEA ZURE NEURRIRA

15 egunez



Neurri haundiak
Galtzak eta bakeroak 70 arte
Atorrak 56 arte
Jertseak

NEURRIRA EGINDAKO GALTZAK

Amezitia z/g · DONEZTEBE · 948 451 670



- Ramon Sanjurjo
- Roy Robson
- Fuentecapala

Serapio Mújica, 11
20302 IRUN
943 612 626

www.capelettimercheirun.com



IRIS
FLORISTERIA
LOREDENDA
1983

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

**2016ko EZKONTZETARAKO
ESKAINTZA BERRIA**
PREZIO BEREZIAK EZKONTZA OPARIETAN +
AUTOKO LOREAK OPARI +
MUTILAREN PRENDIDOA OPARI

- Andregaien erramueta espezialistak
- Elizen dekorazioa
- Serpenti kanoiak
- Ezkontza oparietan aukera zabala
- Ilerako apaingarriak
- Arrak • Ligak

NARBARTE • T .948 59 22 00
www.gardenesther.com • f

Zuk ere egin dezakezu...
...baina zerbaiz gehiago nahi badazu...

bortzirudi
Diseñu eta publicitate tailerra • Taller de diseño y publicidad

Ander eta Gorane

Aukerak,
aholkuak
eta
prezio ezin hobekak
eskeintzen dizkizugu!

100 gonbidapen 35 euro

bortzirudi@gmail.com • Bera • 948 631 521

LORE SORTAK

Sorta bat eta bakarra osatzeko, mila kolore eta aukera

Andregaiaren lore-sorta kolore puntua edo originaltasuna gehitzeko balia liteke. Andregaiaren izaeraren isla ere bada eta beraz, esanahi handia du. Aurtengo joeren artean, proposamen oso desberdinak topa litezke; kolore, lore eta espezie desberdinak sorta bakarrean konbinatuz adibidez.

Kolore eztanda

Kolore biziko larrosak, margaritak eta mota guztietako krabelinak koloretako lazo eta apaingarriekin konbinatzea proposatzen dute. Lore-sorta ikusgarria osatzen da, alaia eta bizia.

Originaltasuna guztiaren gaineratik

Ohiko osagaiekin batera, fruta eta landare zuku-tsua (kaktusak adibidez) erabiltzen hasi dira hainbat loredendetan. Emaidza originala da eta gainera, landare hauek gehiago irauten dute.

Basoko loreak

Basalandareak geroz eta gehiago erabiltzen dira. Neurri desberdinetako loreak oliba, erramu eta eukaliptoekin konbinatzen badira, emaitza borobila lortuko da.

Txikiak osotasunean handi

Lore-sorta txikiek handiek adina indar izan dezakete. Oso apainak dira, eraman errazak eta bertze elementuei ez die protagonismorik kenduko.

GONBIDAPENAK

Mezu bat baino gehiago...

Ezkontza gonbidapenetan hitzek bezainbesteko garrantzia dute diseinuak eta erabiltzen den euskarriak. Ezkongaiak emaitza pertsonalatu nahi izaten dute eta gonbidatuei ezustekoa eman. Hori lortzeko geroz eta aukera gehiago daude merkatuan. Asko dira gonbidapena hutsetik sortzen duten enpresak, kolorea, irudiak, konposizioa, tipografiak... azken xehetasuna ere ezkongaiak aukeratzen dute halakoetan. Paper mota bereziak, kutxatxo originalak, puzzle itxurakoak, ilustrazioak dituztenak, eskuz eginak iruditenak... ere moda modan daude.

Bideoak

Eta ezin aipatu gabe utzi teknologia berrien eraginez pixkanaka indarra hartuz doaz gonbidapen mota bat: bideo-gonbidapena. Bideo original, eta biral bat sortzea da proposatzen dutena, dibertigarria, hunkigarria... bideoaren edukia norberak erabakiko du.



MUSIKA

Ezinbesteko osagaia

Momentu bereziak are bereziago bilakatu eta festa lehortarazteko gaitasuna du musikak. Horregatik, gaur egun ezkongaiak izaten dira DJ baten laguntzaz, ezkontza egunean entzun nahi dituzten kantuen zerrenda osatzen dutenak. Bateko eta besteko kantuek tartekatzea izaten da adituek egiten duten gomendioa, monotonia saihestea. Batzuetan emozioak areagotu eta bertzeetan festarako giro bikaina sortuko dutenak aukeratzea.

OPARIAK

Erabilgarriak eta pertsonalizatuak




Gonbidatuei banatzen zaizkien oparitxoak erabakitzeke orduan, merkatua hain da zabala, bata edo bertzea aukeratzeko izaten direla komerkiak. Dena den, bada denean zabaltzen ari den joera bat, oparitxoak ahalik eta gehien pertsonalizatzea.

Gerora erabil litekeen zerbait aukeratu eta norbere ukuitua gehitzeko aukera ematen dute gaur egun enpresa gehienek. Horregatik, gailu teknologikoak oparitzea moda modan dago: USB ikusgarri bat, mugikorerrako kargagailua, selfieak ateratzeko makila...

txarteltxo original batekin edo kutxatxo berezi batean sartuta.

Irudimena martxan jarri eta euren afizio edo izaerari lotutako opariak bilatzen dituztenak ere geroz eta gehiago dira, oparia jasotzen dutenek segituan bikotearekin identifikatuko duten zerbait bilatzea da gakoa (zinezaleak, kirolariak... badira horrekin lotutako zerbait oparitza).

Beraiek egin edo enkarguz eskatutako eskulanak, argazki bereziak... ere boladan daude, emaitza originala eta berdingabea izatea da helburua.



endara edj's
deejays

Ezkontzak, Ekitaldiak, Bestak...

ZURE MUSIKA Info gehiago: 605 762 880
www.endaradeejays.com

Zure ezkontza gonbidapena pertsonalizatua.

GONBIDAPENAK

OROIGARRIAK

amaia@mailpostabuzoneos.com

Mailposta Buzoneos Tel. 686 747 713
Altzugorea *Narbarte

INZAKARDI, 9
31740 DONEZTEBE
Tel. 948 450 409
www.cosasdcasa.es

2016 EZKONTZAK

Etorri eta inongo konpromezurik gabe lagunduko dizugu!

GURE GONBIDAPENAK AHATZETZINAK DIRA!

- Klasikoak, modernoak, dibertigarriak, ...
- Testu eta argazki pertsonalizatuak.
- Muntaia dohainik.

GONBIDAPENAK

OPARITXOAK

- Azkeneko nobedadeak.
- Dendan erakusketa zabala gizon eta emakumeentzako oparitxoetan.
- Oparitxoen prestaketa.

*Saskiak, kutxak, figurak, ezkontza-horniak (arrak)....



ttipi-ttapa
BERRIAK
TWITTERREN ERE BAI!
 @ttipi_ttapa / @erran_eus



Zaldúa
 argazkilariak

Elizondo - Doneztebe www.fotozaldua.com
 948 580 491 948 450 364



ARGAZKILARIAK

Momentu bereziak harrapatuz...

Teknologia berriek, argazki eta bideo tradizioaletik haratagoko pausoa emateko aukera eskaintzen dutenez, irudimena da ia muga bakarra. Konposizio dotore, original edota dibertigarriak sor litezke eta gainera, argazkiak ateratzeko orduan primeran pasa!

Ezkontza aurreko argazkiak

Ezkontza egunaren aurretik, argazkilariak bikotea ezagutzea gomendagarria da beti. Hartu-eman hori gauzatzeko, ezkontza aurreko argazki sesio bat egiteko ohitura asko ari da zabaltzen. Ingurune lasai batean, ordutegirik gabe, objektiboaren aurrean erosoan nola sentitzen diren jakin dezakete horrela ezkongaiak. Eta argazki horiei etekina atera ere bai gonbidapenak, bideo bat.... osatzeko erabiliz.

photolekun
 Ricardo Bosch - Argazkilariak



Herriko Plaza 4 , Bajo - 31870 LEKUNBERRI
 Tfno.: 658 73 77 31 - 948 50 43 70



Airetik ere bai

Azken urteetan teknologiaren munduan izan den berrikuntza nagusienetakoa dronak dira eta argazkilaritzan ere hasi dira erabiltzen. Haueri esker, duela gutxira arte ezinezkoak ziruditen argazkiak atera litezke. Airetik argazkiak aterata, irudi ikusgarriak lortzen dira, perspektiba ezezagunak eskainiz.



TELLETXEA
 ARGAZKIAK
 LESAKA
 946 637 261

ORRAZKERA | MAKILLAJEA

Berezitasunaren bila norberaren izaerari utsiz

Janzkerarekin batera, orrazkera eta makillajea izaten dira itxurari ukitu berezia gehitzen diotenak. Horregatik, neurria hartzen jakitean dago gakoa, egunerokotik irten baina norberaren izaerari eusten asmatzean. Aurpegiaren forma, adatsaren luzera, kolorea, jantziaren estiloa, norberaren izaera.... kontuan izan eta aukera desberdinak probatzea komeni da. Aukeraketa errazteko, adituei entzun eta aurtengo tendentziak zeintzuk diren jakitea lagungarria da:

Txirikordak edonon

Ile-bildu baten parte izan litezke, orrazkeraren elementu nagusia edo ilea solte daramatenentzat bereizgarria. Handiak, tikiak, estuak, lodiak... txirikordak behin eta berriz agertuko dira orrazkeretan.

Zergatik bakarra aukeratu?

Orrazkera bat baino gehiago gustuko dutenek, ez dute zertan bakarra aukeratu, bata eta bertzea konbinatzea modan dago. Ileapaintzaile aunitzek trentzak eta ile-bilduak, atzekoz aurrera egindako ile-bilduak... proposatzen dituzte, molde guztiak apurtuz.

Guztiaren arteko oreka

Makillajea aukeratzeko orduan, orrazkera eta jantziak zeresan handia dute. Garrantzitsua da hiru elementuen arteko oreka lortzea. Makillaje deigarria aukeratzen dutenei orrazkera informal eta sinpleagoa eramatea gomendatzen zaie eta orrazkera oso landua bada, makillajea naturalagoa izatea.



Irene
ileapaindegia

610 256 557 · 948 638 186 · LESAKA

Aurpegiako tratamenduak
Mesoterapia
Gorputzerako tratamenduak
Erlaxatzeko masajeak
Drainatze linfatikoa
Faguterapia - LPG
Presoterapia
Argizariarekin depilatzea
Betileetako permanentea
Manikura - Pedikura
Makillajea

Xarma
ESTETIKA

Altzate 33 BERA · 948 63 09 04

ttipi-ttapa

**AURREZTU
EZKONTZAKO
GONBIDAPENETAN**

Koskontako bidea 7, LESAKA
T. 948 635 458 · info@ttipi.net

deitu eta aholku emanen dizugu

ESKAINTZA

 100 flyer 150€	 100 bi-orriko 170€
--	--

Inprenta barne | Sobreak barne
BEZa barne | Epea: 10 lan egun

BIDAIA

Amestutako bidaia

Ezkon bidaiarekin ametsetan ariko dira dagoeneko ezkongai ugari. Hondartza eta eguzki bila, abentura gosez, kultura edo herrialde ezezagunen majiak erakarrita... Munduko mapa eskuetan hartu eta helmuga aukeratzeko ordua da. Milaka dira aukerak eta baita bidaia motak ere. Agentziek aurrez prestatutako bidaien artetik bat aukeratu edota momentuan, neurrira, bidaia osatzeko aukera ere eskaintzen dute. Maleta prestatu eta aire, amestutako bidaia egitera!



**HELBIDEA ALDATU DUGU!
HEMENDIK AURRERA,**

EZTEGARA PASEALEKUA, 30

GURE TELEFONOA, BETIKOA DA:

**948 630 451 ETA
948 630 641 FAXA**

BERAN,

**13 URTEZ BIDAIARIK ONENAK
PREZIORIK ONENETAN ESKAINI**

**HITZORDUA AURREZ
ESKATUTA, ITXARON
BEHARRIK EZ**



Halcon  bidaiak.com



Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com



EZKONTZA ZIBILAK

ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU



**EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE,
BERTAN PASA DEZAKEZUE:
ZEREMONIA, BANKETEA
ETA DANTZALDIA**

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN



ZUBIONDO

Jatetxea sagardotegia



- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurrendako jolasparkea
- Koktelarako leku aproposa

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

Alasta Karrika BERA • T. 948 625 472
www.zubiondojatetxea.com

zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 - 948 630 967
w. www.zalain.info e. sainz.amaia@gmail.com

Bi jangela:

- Beheko solairuan 50 lagunentzako
- Goiko solairuan 180 lagunentzako

Zerbitzuak:

- * Loreekin dekorazioa, menuen inprimaketa, (prezioaren barruan).
- Luntxa edo berendua · Terraza.

Menu ezberdinak. Galdetu konpromisorik gabe.



JATETXEA

Amestutako eguna ospatzeko tokia

Bikote batek ezkontzeko erabakia hartzen duenean otordua eginen duen lekua aukeratzeko eta ziurtatzea izaten da lehenengo eginkizunetako bat. Tokia, menua, eskaintzen dituen zerbitzuak, duten esperientzia... kontuan hartu behar da aukeraketa egiteko orduan. Jatetxeak bisitatu eta bertako profesionalekin solastea izaten da hoberena, tokia bertatik bertara ikusi eta eskaintza zuzenean kontsultatuaz.

Kokapen egokia

Adituek diote, ez dela komeni ezkontza lekutik jatetxera arteko distantzia oso luzea izatea, gehienbat erosotasunagatik. Batetik bertera mugitzeko jatetxe batzuk autobus zerbitzua eskaintzen dute eta horregatik, norbere aldetik garratzen arduratzen hasi aurretik, aukera hau ba ote duten galdetzea komeni da.

Zer eskaintzen du tokiak?

Ongi etorri koktela eskaintzeko txokoa, dantzalekua, haurrentzako jolastokia, lorategiak... jantokiak bezain berteko garrantzia dute. Jatetxean bertan ezkontzeko aukera ere geroz eta gehiagok eskaintzen dute. Jatetxera sartzeko oztoporik ba ote dagoen ere ikusi: gurpildun aulkian daudenean, haurrek edota adinekoek trabarik izan ez dezaten.

Menua

Otordua izaten da ezkontzaren oinarri eta jatetxeek menu irekiak eskaintzen dituztenean, bakoitzaren prezio eta estilora gehien egokitzen dena aukeratzeko modua izaten dute ezkongaiak. Menu bereziak (zeliakoentzat, begetarianoak...) prestatzen dituzten ere galdetu, gonbidatu guztiek banketeaz gozatu dezaten.




KOXKONTA


JATETXEA | LESAKA

T. 948 627 519



- | 200 lagunendako tokia.
- | Ezkontza zibilak ospatzeko aukera.
- | Menu eskaintza zabala.
- | Ongietorri koktela karpan.
- | Ezkontza intimoetarako aparteko jangela.
- | Afaritxo eskaintzeko eta besta goizalderarte luzatzeko aukera.





OSPAKIZUNETARAKO JAUREGI BAT ZURE ESKU *Ezkontzak eta ospakizunak*



Palacio Jauregia - Alojamentuak



Aquirre Jatetxea



Jauregiarte

MENUA

Otordu on batean dago arrakastaren gakoa




Mimoz sukaldatutako otordu bat jatea plazer hutsa da eta horregatik ezkontza batean eskaintzen den jatekoari garrantzia handia ematen zaio. Ezkontza eguna baino hilabete lehenago egin ohi da menuaren aukeraketa eta emaitza borobila izan dadin, faktore dezente hartu behar dira kontuan. Adituek ongi etorri koktel arin batekin hastea gomendatzen dute eta segidan, sasoiko produktu fresko eta osagai ezagunekin prestatutako platerak zerbitzatzea. Eskaintzen den aukera anitza izatea ere komeni da, ahalik eta gonbidatu gehienek gustuko menua osatu eta ez daitezkeen osagaiak behin eta berriz errepikatu. Kontuan izan zaporeak bezain besteko garrantzia duela plateren itxurak ere, plateren aurkezpenari ere erreparatu. Bazkaria edo afaria den ere kontuan hartu behar da, gauean eguerdian baino plater arinagoak jartzea hobe izaten baita. Jatekoak adinako garrantzia izaten du egun berezi hauetan edariak eta aukera desberdinak eskaintzea garrantzitsua da: ardo beltza, zuria edo gorria, cava, sagardoa... Postreari dagokionez berriz, ezkontza tarta izan da orain artean ohikoena, baina geroz eta gehiago dira pastelxo desberdinak, moussak, izozki bereziak... eskaintzen hasi diren jatetxeak.

Indarrak hartzeko mokadutxoak

Otorduren ondotik, dantzaldia dator eta hango tragoxka, hemengo dantza... erritmoari eusteko zerbait jatea ere komeni da. Horregatik, iluntze edo goizaldean (eguneko edo gaueko ezkontza izan) gonbidatuei mokadutxo bat eskaintzen zaie. Gazitik edo gozotik jo liteke eta jatekoa modu desberdinetan aurkeztu. Modu tradizional edo modernoagoan egindako pintxo bero eta hotzak, txokolatzeko iturria, mota guztietako goxoekin osatutako mahaitxoak... benetako arte lanak ikus litezke.

Zure ezkontza egunean, otordurik berexiena



BEOLA
Posada-Palacio



Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 300
beola@beola.com www.beola.com

Ezkontzetarako informazioa
T. 686 152 917



eh
HOTELchurrut



ezkontzetan
adituak

Foruen plaza · BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com



Ezkontza eguna
Urzaia jatetxea
Ornoz-Mugaire

*zure gustoko menua elkarren artean diseinatuta
juntos diseñamos el menú a tu medida*

*dituzuen dudak eta galderak gustura argituko ditugu,
inolako konpromisorik gabe*

948 59 20 63



Ikaburua
Ezkontzak

**Ospatu gurekin
zure ezkontza**

- Ezkontza ospatzeko gure sukaldea eta jangela zure esku jartzen ditugu.
- Dantzaldia nahi adina luzatzeko aukera.
- 220 lagunendako jangela eta 15 lagunendako logelak.
- Catering, ilepaindegi, hotel, landetxe, aterpe, lorendenda edo Baby Sitting desberdinen helbideak eskaintzen ditugu.

Leorlas auzoa | URDAZUBI/URDAX | T. 948 599 222 - 690 755 875 | info@ikaburua.com



EZKONTZA ZURE GUSTURA

Ezkontzetarako gune eksklusibo berria,
Nafarroako iparraldeko mendietan kokatua.



Mirador
de YRISARRI

Yrisarriko miradorea ingurune zoragarrian
kokatua dagoen landa-eremuko resorta da

Mirador de Yrisarri ezkontzak ospatzeko espazio berri eta eksklusiboa da. Nafarroako iparraldean kokatua, Gipuzkoatik oso hurbil dago, zehazki Donostiatik 35 kilometrora eta Iruñetik berriz, 62 kilometrora.

Ezkontzak ospatzeko areto handi eta irekia du, zutaberik gabea, 320 lagun arteko tokiarekin. Gainera, momentuoro inguruko mendiek eskaintzen duten ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera izanen dute gonbidatuek, 30 metroko beirate ederrari esker. Kanpoaldean berriz, 300 metro karratuko terraza handia eta lorategi zainduak ditu ongietorriko aperitibo eskaintzeko aproposak. Eta eguraldiak lagun-duko ez balu, terraza estaltzeko aukera ere badago.

Kalitate handiko elikagaiak erabiliaz, tradizioa eta berrikuntza lotzen dute bertako sukaldariek, plater bakoitzaren aurkezpenari ere dagokion garrantzia emanez. Zaporeak bezain besteko garrantzia baitu itxurak ere.

Menuaren prezioa 115 eurotik gorakoa da (BEZa barne) eta ezkongaien gustuen arabera osatzen da.

Marta Álvarez, nazioartean ezaguna den wedding planerrak, hartu du gune hau kudeatzeko ardura eta ezkontza berezi eta ahaztezinak ospatzeko lekua sortu da. Guzti honen emaitza dekorazio dotorea duen espazioa da, luxuak eta modernitateak bat egiten duten tokia.

Lasaitasuna eta intimitatea ziurtatuta daude landa-eremuko resort berrian. Gainera, IrriSarri Landen kokatua dagoenez, ostatu hartzeko eta ongi pasatzeko aukera aunitz izanen dituzte ezkongai eta gonbidatuek.

MIRADOR DE YRISARRI

Irisarri auzoa 1, 31790 Igantzi (Nafarroa)
948 928 922 / info@miradordeyrisarri.com
www.miradordeyrisarri.com

BERTSOLARITZA → MARTXOAREN 19AN

Bardoak ekimenaren azken saioa prest dute

Hiru talde izanen dira lehian Etxarri-Aranatzen

TTIPI-TTAPA

Bi hilabeteren ondotik, Bardoak Nafarroako taldekako txapelketaren hirugarren edizioa martxoaren 19an ailegatuko da amaierara. Etxarri Aranazko frontoian jokatu da finala, 17:00etan hasita.

Hau idazterakoan erabaki gabe, baina irakurtzen duzunerako zehaztuak izanen diren hiru taldek hartuko dute parte finalean; gutxienez bederatz bertsolari izango dira oholtza gainean. Beste taldeetako kideek zein entzuleen botoek erabakiko dute zein talde den hirugarren edizio honen irabazlea.

Finalerako sarrerak dagoeneko salgai daude www.bertsosarre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Duela bi urte Lesakan jokatu zen finala.

rak.eus atarian. 10 euroan dago sarrera bazkideentzat eta 16 urtetik beherakoentzat eta 12 euroan gainerakoentzat. Horrez gain, saiorako sarrerak salgai egonen dira Nafarroako hainbat herritan, ohiko tokietan. Aipatzekoa da erran.eus webguneko *Zozketak* atalean sartuta ere bi sarrera bikoitz eskura-

tu daitezkeela. Zozketa martxoaren 14an egingen da, 12:00etan.

Ohi bezala, finala bukatuta triki-poteoa egongo da herrian baina eta bukatzeko Bardoaren afaria. Afarirako txartelak ere salgai daude, soilik internetez erosten ahal dira eta kopuru mugatua da.

Urtarrilaren 22an

abiatu zen Bardoaren aurtengo edizioa eta 23 saio jokatu dituzte Nafarroan baina. 121 parte-hartzaile izan dira 16 taldeetan banatuta, horietatik 71 bertsolari zirela. Hirugarren edizio honetan bardoak eremu berrietara zabaldu dira eta lehen aldiz Lizarran, Altsasun eta Aurizberrin taldeak atera dituzte.

GIZARTEA → MARTXOAREN 14TIK 20RA

Kultur Astea ospatuko dute egunotan Berako Zahar Etxean

Sagardotegia eta Bolondres Eguna egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 14tik 20rako astean Aste Kulturalean izanen dute Berako San Jose Zahar Etxean.

Martxoaren 14an, **astelehenean** 13:00etan

Berako Ehiza eta Arrantza elkartearen basurde jatea izanen dute.

Asteartean, 16:30ean Mikel Iriarte eta Gabriel Canariasen eskutik musika kontzertua.

Asteazkenean, 16:30ean hasita talo tailerra eta talo dastaketa.

Ortzegunean, 17:00etan Herri Kirolak.

Ortziralean, 17:00etan Bertsolariak: Iker Gorosterrazu, Alazne



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibardingo Mendiko sagardotegira urteroko bisita egin dute Zahar Etxeko bizilagunek.

Untxalo, Aitor Elempuru eta Patxi Castillo. Gai jartzailea Julen Zelaia izanen da.

Larunbatean, 17:00etan Mus eta Partxis txapelketa

Igandean, 17:00etan dantza erakustaldia.

SAGARDOTEGIA ETA BOLONDRESEN EGUNA

Urtea indartsu hasi dute Zahar Etxean. Urtarrilaren 18an Ibardingo Mendiko Sagardotegiko txotx denboraldia estrenatu zuten, Ignaziok gonbidatuta.

Otsailaren 22an Bolondres Eguna bikaina izan zuten. Inma Danborienak alaitu zuen bere akordeoiaz arratsaldea eta mahai luze baten inguruan bildu ziren bolondresak eta Zahar Etxeko bizilagunak.

ITUREN

GIZARTEA → HERRIKO ETXEA

Bi langile kontratatu ditu Udalak herriko lanetan aritzeko

Arkaitz MINDEGIA

Berriki beste bi langile kontratatu ditu Udalak eta martxo hasieraz geroztik lanean ari dira. Eburne Arretxea udal eraikinak (eskola, udala, medikuaren kontsulta...) garbitzeaz arduratuko da eta Juan Luis Loiarde Santestebanek herriko kanpoko lanak eginen ditu. Bi langile hauez gain azaro aldean hasi eta maiatza arte Julen Aranburu eta Maxi Gereka ere udalarentzat lanean ari dira.

Pulunpa eskolako berriak

Beste eskolek bezalaxe, otsailean 2016-

2017ko aurre matrikulazioak martxan jarri zituene Pulunpa eskolak. Izen-emateak bukatu ondotik, erran dezakegu, 11 ikasle berri izanen direla Pulunpan datorren ikasturtean, hiru urteko 9 ikasle eta lehen hezkuntzan bi. Seigarren mailako ikasleek berriz, Doneztebeko Mendaur instituturara eginen dute jauzia.

Bertzalde, irakasleak Malerrekako bertze eskola ttiketako irakasleekin batera Joku Topaketak antolatzen ari dira burubelarri. Martxoaren 22an izanen da besta Sunbillan eta bertan tailerrak eta ekital-



UTZITAKO ARGAZKIA

Inauterietako kontuen eguneko emanaldiaren ondotik hasiak dira dantza berriak ikasten.

di ugari izanen dira. Eskolako kontuekin segituz aipatu behar da, Guraso elkarteak hitzaldiak antolatzen hasia dela. Otsaila bukaeran Herriko Federakuntzako Karmen Nieto psikologoak Bullyingaren inguruko hitzaldia eman zuen. Arront interesgarria izan zen eta aurrerantzean ere, antolatzen diren hitzaldietara bertaratzeke deia egin dute.

Jubilatuak bazkaria

Otsaila bukaeran urteroko zita izaten dute Zubieta, Elgorriaga eta

gure herriko jubilatuek. Aurtengoan Iturengo Herriko ostatuan ospatu zuten Arkupeakeko bazkideen besta. Bazkari eder baten bueltan bildu ziren eta musean aritzeko tartea ere hartu zuten.

Ibintzako dantzariak lanean

Inauterietako kontuen egunean eskaini zuten azken emanaldiak Ibintza dantza taldeko dantzariak eta dagoneko hasi dira dantza berriak ikasten. Dantzari ttikiak Olaia eta Mi-

ren irakaslearekin ari dira gogotsu lanean. Gaztetxoan eta helduen taldeak berriz, Ane Gurrutxaga lesakarrarekin hasi dira lanean duela gutxi, orain arte Naia Gurre txokoako dantzaria izan baita beraien irakaslea. Norbaitek dantzan hasteko gogoia izanen balu, badago aukera, nahikoa da bertako irakasle edo dantzari bategin harremantant jartzea. Ttikiek ostiral arratsaldetan izaten dituzte klaseak eta besteak berriz, larunbat goizetan aritzen dira.

erran

Mendialdeko Albistek
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

- 🏠 Albistek
- 📅 Agenda
- 👤 Komunitatea
- 📻 Xorroxin online
- 📰 Eguraldia
- 📦 Merkatu ttikia
- 🔔 Urtebetetzeak
- 📺 Bideoak
- 🖼️ Galeria

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberako bilaketak egiteko aukerarekin

GERTAERAK → OTSAILEKO AZKEN ASTEBURUAN

Tolateko eta Azperroko errekek gainezka egin eta kezka sortu zuten

Ura bere bidera bueltatu zen aparteko kalterik gabe

Fermin ETXEKOLONEA

Otsaileko azken asteburua euritsua suertatu zen eta herriko karririk urez gainezka agertu ziren. Herrigunetik pasatzen diren bi errekek, Tolateko errekek eta Azperroko errekek (argazkian) ezin izan zioten urari bere ubidean

kontu eta horrek, noski, herritarren kezka sortu zuen. Halere, aparteko kalterik gabe, ura bere bidera bueltatu zen.

Udal langile berriak

Udalan langile berriak ari dira, Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzarekin kontratatuak. Jexux Mari Azpiroz iturendarra herriko lanetan ariko da eta bestea errotan ariko da, Maxux Petrikorena bueltatu baita lan horretara.

Emakumeen afaria

Emakumeen Eguna-ren harira, emakumeek afaria antolatu nahi dute Herriko Ostatuan martxoaren 12an. Herriko Ostatuan izanen da zerrenda izen emateko.

Iturri Bardoa

Leitzako Atekaberts taldearekin ari da Ander Fuentes Iturri herriko bertsolaria. Hau idazterakoan ez dakigu martxoaren 19an Etxarri-Aranazko finalean izanen den, baina final ata-



ARGAZKIA: ARANTXA DIEZ

Azperroko errekek gainezka egin zuen herrian.

rira behinik behin ailegatu zen.

Aizkora apustua

Martxoaren 20an, igandea, Mieltxo Mindegiaren eta Eneko Otaño gipuzkoarraren arte-

ko aizkora apustua jokatuko da Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan, 12:00etan hasita. Aizkolari bakoitzak hamabi kanaerdiko eta lau 60 ontzako moztu beharko ditu.

DONAMARIA

GIZARTEA → 2016 URTERAKO

304.820 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Inbertsioetara 19.815,22 euro bideratuko dituzte aurten

TTIPI-TTAPA

304.820,35 euroko diru sarrerera eta irteerak izanen ditu aurten Donamariako Herriko Etxeak, Maite Urroz Oiar-

tzabal alkatea buru duen udalak onartutako aurrekontuaren arabera.

Administraziotik helduko diren transferentzia arruntez gain, 40.169,85 euroko diru sarrerak aurreikusituzte herrilurren eta ondarearen aprobetxamendutik eta bertze 36.638,50 euro tasa,



ARGAZKIA: GARBINE JORAJURIAK UTZUA

Otsailaren 20ko kontu egunarekin akitu ziren inauteriak

Otsailaren 12 eta 13an ospatu zituzten inauteriak Donamarian. Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, primeran joan ziren. Haur, gazte eta helduak bakoitzak bere moduan primeran pasa zuten, etxez etxe eskean, jolasetan, afarian... Afari baten aitzakiarekin, otsailaren 20an kontu eguna ere izan zuten, eta guztia primeran atera zen.

prezio publiko eta bertzelako sarreretatik.

Gastuei dagokienez, 19.815,22 euro bidera-

tuko dira inbertsioetarako aurten.

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 20AN

Aspaldiko partez giro ederrean ospatu dituzte inauteriak

62 pertsona elkartu ziren Irazu eta Mendiluzerekin egindako bertso afarian

Fernando ETXEBERRIA

Otsailaren 20an, aspaldian ahaztua genuen besta berreskuratu zen herrian, inauteriak ospatu baitira berriz. Azken urteetan afora bat antolatzen zen bertsolari eta trikitilariekin, baina aurten besta boro-

bila. 12:00etan jarri zen hitzordua eta herritar asko izan ziren frontoira mozorroturik joan zirenak. Etxez etxe puska biltzen aritu ziren gero, etxeetan eskaintzen zieten jatekoa eta edatekoa hartuz. Pare bat orduz ibili ziren herrian barrena eta segidan, Barranka ostatuan elkartu ziren denak. Arratsaldean haurrentzako jokoa, musika eta txokolatea ere antolatu zuten. Gauean, 62 pertsona elkartu ziren bertso-afarian. Irazu eta Mendiluzere primeran aritu ziren



bertsotan eta bat-bateko bertsolarien koplak eta mariatxiren batzuk entzuteko aukera ere izan zen. Dantzaldia izan zen gero eta besta goizaldera arte luzatu zen. Aipatu behar da emakume askok parte hartu zutela, bestari kolorea emanaz.

Bataioa

Otsailaren 14an Ruben Telletxea Eratsunen, Maitane eta Martinen semearen, bataioa ospatu zen. 40 bat senide bildu ziren, Tiburcio Sanzberro apaizak



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Giroa izan da inauterietan, kalean eta mahai-inguruan.

emandako meza entzuztera. Jose Luis Eratsun eta María Jesús Marietzurrena dira bere ai-

tabitxi eta amabitxiak. Etxalarko bentara joan ziren gero, denak elkarrekin bazkaltzera.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Malerreka kantuz

Malerreka kantuz ekimena egin zen otsailaren 6an herrian eta giro polita sortu zen. 53 laguneko taldea bildu zen eguerdiko 12etan frontoian eta trikitilari baten laguntzaz, kantu zaharrak abesten aritu ziren herrian barrena. Eguerdiko ordubetan Barranka ostatuan eman zioten bukaera festari.

GIZARTEA → INSTALAZIOAK HOBETU NAHI DIRA

Udalak enpresa publiko bat sortuko du kirol zerbitzua kudeatzeko

Igerilekuak berritzeko lanak martxan

JM BARRIOLA

Amazabal kiroldegi-ko erabiltzaile eta bazkideekin kirol zerbitzuari buruzko bilera egin zen otsaila bukaeran eta bertan Mikel Zabaleta, alkateak eta Eneko Andueza, kirol zinegotziak zerbitzuan datozen hila beteetan emango diren aldaketen berri eman zuten. Alde batek, Udalak enpresa publiko bat sortzeko asmoa du. Enpresa publiko horren zeregina Leitzako kirol instalakuntzak eta programa ku-

deatzea izanen da. Horrela enpresa publikoak lortuko lituzkeen etekinak instalazioak hobetu eta moldatzeko erabili ahalko lituzke Udalak.

Enpresa publiko horrek zuzendari bat izango du kudeaketa ekonomikoa, antolaketaz in programazio lanak egingo dituena. Behin enpresa publikoa sortzen denean, lanpostu hori sortu eta pertsona egokia aukeratzeko prozedura irekiko du Udalak.

Irailetik aurrera norabide berria eman nahi dio Udalak kirol zerbitzuari eta bilera hau baliatuz, bazkide, era-



ARGAZKIA: NEREA MAZKIARAN (DIARIO DE NOTICIAS)

305 kiloko harria berdintzea lortu zuen Inaxio Perurenak

Inaxio Perurenak 305 kiloko harria altxatu zuen otsailaren 27an, larunbat eguerdian Leitzako Amazabal pilotalekuan. Harmailak lepo bete ziren, 400 ikusle inguru, eta Perurenak lehen saiakeran lortu zuen bere markarik onena. Legezko altxaldia izan zen, baina harri-jasotzaileari zapore gazi-goza utzi zion, lau kolpe eman behar izan zizkiolako bularrean. Hurrengo altxaldirako beldur horrekin gelditzen naiz», aipatu zuen eta gorputzak onartzen duen bitartean marka berriak egiten saiatuko dela.

biltzaile zein herritarren iritzia jaso nahi izan zuten. Bilera honen helburu nagusia bazkide eta erabiltzaileek zerbitzua nola ikusten duten eta nola hobetuko luketen jasotzea zen. Azaldu ziren 28 bazkideen iritziaz gain, martxan jarritako inkestak 78 erantzun jaso ditu Udalak, guztiak zerbitzua baloratuz eta hobekuntza proposamenekin.

Ekarpen gehienak ordutegiari, zuzendariak bete beharreko funtzioei eta instalazioen erabilpen zein kirol eskaintzari egin zioten aipamena.

IGERILEKUKO ALDAGELAK BERRITZEKO LANAK

Udalak igerilekuko aldagelak moldatzeko lanak hasi ditu eta udara bitartean ariko dira zeregin horretan. Heze-

tasunak sortzen zituen arazoei irtenbidea behin-betiko eman eta, bide batez, komunak eta aldagelak zaharberritu nahi dituzte. Horretarako, udal-langileez gain, Gazte Bermea programarekin kontratatutako bi gazteak ere moldaketa lan hauek egiten jarri dituzte. Berrikuntza lanen kostua 50.000 eurokoa izanen dela aurreikusten dute.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Leitza eraso sexistaren aurka

Berdintasun Batzordetik etorritako proposamena gauzatu eta Leitzako Udalak argazkian ikus litezkeen kartelak jarri ditu herri sarreran. Horiekin Leitzako herriak indarkeria sexista guztiak salatzen dituela ikustarazi nahi da eta jendarteak gaiarekin sentsibilizatu. Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa garatzeko konpromisoa ere hartu du Udalak eta eragile ezberdinekin batera lanean hasia da.

Emakumeen Nazioarteko egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dira

Martxoaren 8an ospatzen da Emakumeen Nazioarteko Eguna eta horren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Berdintasun Batzordekoek. Martxoaren 3an, *Coria eta itxasoa* filmak ikusteko aukera izan zuten Atekabeltzera joan zirenek. Gainera, filmaren ondotik, Saharan egondako hainbat pertsonen azalpenak entzuteko aukera ere izan zuten. Martxoaren 6an Donostian egiten den Lilatoian parte hartzeko deia ere luzatu zuten eta bat baino gehiago animatu zen. Martxoaren 9an Irakurle Taldekoek zuten hitzordua eta Virginia Woolf idazlearen *Dalloway anderea* izan zuten hizketagai. Martxoaren 16an izanen da hurrengo hitzordua, *Amatasuna eta feminismoa: harreman ez eroso ote? hitzaldia* eskainiko du Irati Fernandezek 19:00etan Atekabeltzen. Institutuan ere *Nola ikusten dute gazteek feminismoa?* tailerra ari dira lantzen.

ARESO

HIRIGINTZA → HONDAKIN ORGANIKOAK BIRZIKLATZEKO

Auzo-konposta egiteko edukiontziak jarri dituzte plaza zaharrear

Behar ez den tokian zaborra botatzen dutenei isuna jarriko die Udalak

Juana Mari SAIZAR

Duela urte dezente hasi ginen herrian zaborra bereizten eta birziklatzen, kolore desberdinetako edukiontzi bidez. Orain edukiontzi hauek berritzen eta garbitzen ari dira zabor mankomunitateko langileak eta horregatik, ohartarazi dute, ba-

karren bat iraulia ikusi ezker bere horretan uzteko.

Etxean konposta egiteko ontzia baratzetan jarri dutenak ere asko dira eta orain, beste pauso bat eman asmoz, auzo-konposta egiteko edukiontziak ere jarri dituzte plaza zaharrear. Olioia, beira, kartoia eta errefusa botatzeko edukiontzien ondoan dagoen egur koloreko lauki luzea da konpostagailua. Bertan, etxeko gai organiko ia guztiak bota litezke. Etxean hondakin horiek biltzeko ontzia nahi dutenek, zehazki konposta egiteko



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Mota guztietako edukiontziak daude herrian, (auzo-konposta egitekoak jarri berriak) baina hala ere, zaborra han hemenka azaldu da (herri-langileek bildutako zabor pila irudietan).

erabiltzen dena, Mendialdea Mankomunitatean eska dezakete.

Eta edukiontziez gain, hilean behin zabor bereziak biltzera furgoneta bat ere etortzen da eta bolumen handiko tresnak eramateko 012 deitu eta Emauseko traperoak etortzen dira biltzera.

**BALIABIDEAK ESKURA
IZAN ARREN, BATZUK...**

Birziklatzen laguntzeko hamaika bitarteko eskaintzen diren arren, bada oraindik jaramonik egiten ez duenik ere. Azken aldian herriko hainbat parajeetan, zaborra, han hemenka azaldu da, bereziki Gañarbera doan

bidean, hori dela eta Udalak Aresoko herritarrei naiz kanpokoei jakinarazten die, behar ez den tokian zaborra botatzen duenak isuna jarriko duela. Ea denon artean herri garbi mantendu eta bazterrak zikindu beharrean, ingurumena zaintzen laguntzen dugun.

MARTXOAREN 11N

Pelikula emanaldia eta afaria Emakumeen eguna ospatzeko

Juana Mari SAIZAR

Emakumeen Nazioarteko Eguna, martxoaren 8an izan arren, ostiralean, martxoaren 11n ospatuko da herrian. Gizarte Zerbitzuetako berdintasun teknikariak antolatuta, *Coria eta Itsasoa* filma ikusteko aukera izanen da, 19:00etan Udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Emakume sahararren istorioa biltzen duen filma da, ezezezan, paisaia babesgabeanean, bizitza erakitzeke gai izan ziren horiena. Izan ere, duela 39 urte, erbesterratu zituztenean, gizonak gerrara joan eta emakumeak izan ziren errefuxiatuen kanpamenduak altxatu zituztenak. Pelikula bukatutakoan, afari autogestionatua izango da.

Zonaldeko emakume guztiei luzatu diete Aresora hurbildu eta iluntze polita elkarrekin pasatzeko gonbidapena.

ARANO

KULTURA → LAKUNTZAN, MARTXOAREN 19AN

Haur Kantarien Jaialdian parte hartuko dute herriko gaztetxoek

10 laguneko taldea ariko da kantuan

Ainhoa ANSA

Gurea kanturako afizioa duen herria dela gauza jakina da. Hala ere, baziren urte batzuk Aranoko kantariak Haur Kantarien Jaialdian par-

te hartzen ez zutela (azkenak Ansa ahizpak izan ziren). Herriko hamar gaztetxo igoko dira oraingoan oholza gainera. Martxoaren 19an Lakuntzako zinean 18:30ean hasiko da jaialdia eta *Aberriaren mugak* abestia kantatu eta musika joaz ere beraiek aterako dira. Ilu-

sioz daude! Zorte on eta ongi pasa!

Barrikotea

Martxoaren 12an, barrikotea antolatu dute Kontsejuan. Sagardotegiko menua jateko aukera izango da, 24 euroren truke eta segidan parranda ez da faltako.

GIZARTEA → OTSAILAREN 19AN EGIN ZEN BILERA

Inauteriak asteburura pasatzeko aukera baztertu dute momentuz

Zahagi dantza indartu eta zabaltzeko beharra ikusi zuten bilerara joandakoek

TTIPI-TTAPA

Herriko inauterien inguruko hausnarketa prozesuak aurrera segitzen du eta aurtengokak pasatuta, otsailaren 19an, urteko bigarren bilera egin dute gai honen inguruan hitz egin, eztabaidatu eta erabakitzeko.

Jende asko elkartu zen Udaletxean egindako bileran eta lehenik, aurtengo inauterien balorazio orokorra egin zen eta arrakastatsuak izan direla ikusi zen. Jarraian, inauterietako puntu ahulenak eta indartsuenak zein diren aztertutuzten. Horien artean, aipagarria izaten jarraitzen du mozorroen taldeak duen indarra, astelehenean Guraso Elkarteak antolatzen duen konpartsa... Orokorrean, positibotzat jotzen bileran bildutakoek herritarrek erakutsi duten parte hartzea, kaleak girotzeari begira. Hobetu beharreko puntu-

en artean, aldiz, Zahagi dantza indartzea eta zabaltzea ere egoki iruditu zitzaaien bildutakoek. Herritarrek, ahalegin berezia egiteko prest azaldu ziren Zahagi dantza Euskal Herriko txoko ezberdinetara iristeko, kontuan hartuta Goizuetako inauterien ardatza eta berezitasuna dela.

Batzarrean, egitarauaren inguruan egin daitezkeen aldaketak hausnartzeko tarteak izan bazen ere, momentuz, inauteriak asteburura pasatzeko aukera baztertu egin zen.

Hala ere, Udaletik herritar guztiei eskertu nahi izan diete inauterien inguruan sortutako kezkaen aurrean izan duten interesa eta aurtengoetan emandako erantzuna.

Zaintzaileak zainduz

Pasa berri den astelehenean eta hurrengoan, martxoaren 7 eta 14an, Zaintzaileak zaintzen ikastaroa eskainiko du Marian Zestauk eskolako jantokian, 17:00etatik 19:00etara. Gurasoak Guraso Elkarteak, Xalto eskolak eta Gizarte Zerbitzuen Manakomunitateak antolatuta dute.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Ikastaroan parte hartu zutenetako batzuk, zubi handiaren inguruan praktikatzen.

DONOSTIA 2016 KULTUR HIRIBURUTZA PROIEKTUAREN BAITAN

Urumean zehar egindako irteerarekin bukatu zen Bioingenieritza ikastaro interesgarria

TTIPI-TTAPA

Donostia 2016 Europako kultur hiriburutzako proiektuaren barrenean Bioingenieritza ikastaroa egin zuten herrian. 30 orduko tailer teoriko eta praktikoa izan zen otsailaren 22tik 26ra.

Gaur egun, Urumean egiten ari diren proiektuetarako erabili nahi diren teknikak ikasi zituzten eta gero, mota hauetako obretan parte har dezaketen langileak prestatzeko ere baliagarria izan zen. Otsailaren 24an

hitzaldia eskaini zuen Fredi Rey europar adituak Udaletxeko ganbaran. Mendia eta ibaia ardatz hartuta, mendiko eta ibaiko erlazioari eta gure lurraldeko berezitasunari buruz jardun zen. Ikastaroa bukatzeko, otsailaren 27an irteera egin zuten Urumea ibaian zehar: Donostia, Goizueta, Hernani, Astigarraga eta Donostira itzuli. Irteera honetan ikuspegi hidraulikoa, geologikoa, historikoa, kulturala, arkitektonikoa eta ekologikoa landu zituzten, geldialdiak eginez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Salaberria txapelkun Tolosako Soroan eta Malerrekan

Tolosako Miguel Soroa txapelketa irabazi zuen Iker Salaberria herritarrek otsailaren 27an. Josu Zezeagarekin bikote eginez 22-14 irabazi zieten Alberdi eta Salaberri. Finaleko pilotari onenaren saria ere Ikerrek eskuratu zuen. Malerrekako txapelketan, gazte mailako txapela lortu dute Salaberriak eta Mariezkurrenak. Otsailaren 20ko finalean 18-4 irabazi zieten Lemoako Aurrekoetxea eta Martitegiri.

BAZTAN



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako gizarte zibileko 45 ordezkarik sinatutako manifestua aurkeztu zuten Iruñean.

GIZARTEA → OTSAILAREN 22AN EGIN ZUTEN AGERRALDIA IRUÑEKO CIVVOX-EN

Aroztegiari buruzko galdeketa eskatu dute 45 gizarte eragilek

Sustrai Erakuntzak UGPSaren kontra jarritako helegitean parte hartuko du Udalak

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegi-ko proiektuak soka luzea dakar, ez bakarrik Baztanen, baita Nafarroa osoan ere.

Proiektua geldiarazi eta hari buruzko herri galdeketa emaitza bete beharrekoa izatea eskatu dute Nafarroako gizarte zibileko 45 kidek, manifestu baten bidez. Bultzatzaileek salatu dute «inposizio politiko garbia» dela proiektua, «UPNk utzitako herentzia pozoitua».

Begoña Zabalak eta Xabier Morrasedi irakurri zuten komunikatua egitasmoa babestu dutenen izenean, eta ohar-tarazi dute «eraikuntza enpresak izango direla proiektuaren onuradun

bakarrak, eta ez hara-na». Idatziak dioenez, «ez gara afera juridiko edo negozio partikularrez bakarrik ari. Horretaz gain, afera politiko eta sozialetan ari gara, Baztango auzoen komunitate bati, Lekarozkoari, alegia, eta, oro har, haran guztiari, aurretik sumatu daitekeen modu larrian eragiten diotena bere egunerokotasunean eta natur ingurunean». Horiek hala, eskatu diote Nafarroako Gobernuari frogaz dezlata hauteskunde kanpainan erakutsitako «aldaketarako borondatea», eta antolatuta dezlata galdeketa lotesle bat Baztanen.

SUSTRAI ERAKUNTZAK-EN HELEGITEAZ

Otsailaren 25ean egindako udalaren osoko bilkuran Geroa Baik urjentziaz sartutako mozioa eztabaidatu eta onartu zen, Geroa Bai, UPN eta Baztan Auzolanean taldeen aldeko botuarekin eta EH Bildu eta Baztango

Ezkerraren kontrakoekin. Horren arabera, Nafarroako Gobernuak 2015eko maiatzaren 20an onartutako Aroztegiako UGPS-aren kontra Sustrai Erakuntza Fundazioak jarritako helegitean parte hartuko du Udalak. Horretaz gain, auzi honetan, udalak abokatua eta prokuradorea kontratatzea eskatzen zuen mozioak, udalaren defentsa burutzeko. Onartutako mozioaren arabera, prozesu judizialaren nondik norakoen berri izateko jarraipen batzorde bat ere sortuko da.

Osoko bilkura jendetsua izan zen, zenbait herritarrek Aroztegiako UGPS-a gelditze-ko eta herri galdeketa loteslea egiteko aldarrikapena plazaratu baitzuten, Geroa Bairen mozioaren harira.

Eztabaida bizia izan zen alderdien artean ere, UGPS-aren aldeko zein kontrako argudioak plazaratu baitzituzten. Azkenean, mozioa onartu zuten, Geroa Bai,

UPN eta Baztan Auzolanean alderdietako 7 zinegotzien aldeko bozkarekin eta EH Bildu eta Baztango Ezkerra alderdietako 6 zinegotzien kontrako bozkarekin.

LEKAROZKO BATZARRA

Lekarozko herritarrek Nafarroako Gobernuak onarturiko UGPSa gibelat bota eta Aroztegiako proiektuaren inguruko erabakiak Baztanen eta baztandarrek erabakitzearan alde agertu ziren otsailaren 19an egindako batzarrean.

ELKARRETARATZEA IRUNEAN

Palacio de Aroztegui S.L enpresak Parlamentuan lan saioa egin zuen martxoaren 2an. Horren harira, Nafarroako Parlamentuaren aitzinean, Aroztegia...eta gero zer? Plataformak elkarretaratze jendetsua egin zuen, Aroztegiako UGPSa gelditzeko eta Herri Galdeketa eskatzeko.

FLASH

Bailableak igandean

Elizondoko plazan
Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak, Baztango udalaren laguntzaz antolatuta Bailableak (Muxikoak, Jotak, Larrain Dantza, Gaita...) izanen dira martxoaren 13an, igandean 12:45ean Elizondoko plazan.

Helduendako antzerkia Iruritan

Kamikaz Kolektiboak egin eta zuzendutako *Euli giro* helduendako antzezlanak eskainiko dute martxoaren 20an, igande arratsaldeko 7etan Iruritan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Uxue Alberdiren *Euli giro* liburuan oinarritutako antzezlanak da eta Amancay Gaztañaga, Miren Gaztañaga eta Erika Olaizola dira aktoreak. Kultura Batzordeak eta Berdintasun Batzordeak antolatutako emanadira sarrera doan izanen da, lekuak bete arte.

Oihan lotea %17ko jautsierarekin

Ikusiz lehenbiziko bi enkanteak hutsean gelditu direla, Zaldizuri-Labattoa inguruko herri lurretako oihan lotea %17ko beherapenearekin atera du enkantean hirugarren aldiz Udalak. 2.411 metro kubikoko bolumena hartzen duten Douglas izeiek eta haritz amerikarrek osatzen dute lotea eta hasierako prezioa 79.886,91 eurokoa da.

Herri Urrats

Herri Urrats antolatutako 600 euroko dirulaguntza eman du Udalak.

GIZARTEA → BALLEKO ETXEAK EMANEN DITU

Ikasketa akaberako proiektu eta lanak egiteko laguntzak

Aurkeztutakoen artean 500 euroko lau laguntza emanen dira

TTIPI-TTAPA

Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko diru-laguntza deialdia egin du Udalak. Master akaberako lanak ere onartzen dira. Aurkeztutakoen artean 500 euroko lau laguntza emanen dira. Deialdi honen helburua da Baztango ikasleen artean Baztani eta Baztango etorkizunari buruzko kezka eta interesa piztea eta, beraiek egin beharreko lanak edo proiektuak, helburu horretarako egitea. Proiektuak eta lanak bakoitzaren ikasketa arlokoak izanen dira. Deialdi hau urtarrilaren 22ko Tokiko Gobernu Batzordean onartutako oinarriek arautzen dute eta udalean eskuragarri daude. Deialdian parte hartze-

ko ikasleek, eskariarekin, proiektuaren edo lanaren memoria aurkeztu beharko dute, gehienez lau orrikoa, helburuak, metodologia, iturriak, oinarriko bibliografia... zehaztuz. Memoria honen ikasketa akaberako proiektu eta lanaren tutorearen ongi ikusia beharko du.

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osaturiko batzordeak balortuko ditu. Bertan Elizondoko lanbide eskolako zuzendaria, Lekarozko ikastetxeko zuzendaria, Cederna-Garalurreko teknikaria, Baztango alkatea eta udal idazkaria egonen dira. Batzordeak arloko adituekin kontsultak egiten ahalko ditu.

Eskariak aurkezteko epea Nafarroako aldizkari ofizialean argitaratu eta hilabete batekoa izanen da. Udaltxeko webgunean ere oinarriak eskuratzen ahalko dira eta edozein zalantzetarako, udaltxerak joaten ahal da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertako Haziaren Eguna burutu dute Erratzun

Negu giroko eguraldiarekin Bertako haziaren eguna egin zuten Erratzun otsailaren 27an. Etxelebertzeko elkartearen gerizpean hazien mahaia paratu zuten: banabarra, tomatea, kalabaza, artoa... eta, horiek trukatzeko aukera izan zen. Ondotik Jakoba Errekondoren mintzaldia etorri zen. Ordurako Etxelebertzeko goitik solairua jendez bete zen eta giro berotu, nahiz kanpoan hotza eta alimaleko haize-erauntsiak ari. Harat hurbildutakoek usurbildar nekazal ingeniariaren *Bizi Baratzea* liburuaren aurkezpena interes biziz segitu ahal izan zuten. Mintzaldia Josetxo Apezetxea erratzuarrak aurkeztu zuen eta liburuaren argitaratu duen Argia astekariko Mikel Asurmendik ere hitza hartu zuen. Jakoba Errekondok baratzearen eta baratze gintzaren garrantzia aipatu zituen eta liburuaren barrenkiak aletu. Elikaduraren gaineko kezka eta, hortaz, baratze gintzarena, bizimodu osasuntsu eta hobeto baterako erdigunean paratu zituen. Gaurgo badiara urte batzuk Baztan aldean Bertako haziaren eguna egiten dena. Aurtengo Erratzuko kultur elkarteak eta Hazitik Hoziek antolatu dute, Erratzuko Etxelebertz elkartearen eta Erratzuko herriaren laguntzarekin.

AURREMATRIKULAZIOA MARTXOAREN 11 ARTE EGIN DAITEKE

Helduentzako hezkuntza programaren bigarren ikasturtea egiten dute Lekarozko institutuan

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bertizarana, Bortzirriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalek, zonaldeko institutuekin eta Cederna Garalurrekin elkarlanean eskualdeko helduentzako irakaskuntza programa publikoa eta doakoa indarrean paratu nahi dute bigarren urtez.

Bigarren Hezkuntzako Titulua lor-

tu nahi duten lagunek aurrematrikulazioa gauzatu beharko dute martxoaren 11 bitarte. Idazkaritzako ordu egia honako hau da: 8:00etatik 15:00etara eta asteartetan 18:00ak arte (Telefonoa: 948 581 803).

Guttieneko taldea lortuz gero, heldu den ikasturtean helduen hezkuntza zerbitzua eskainiko dute DBH titulua eskuratzeko.

ORBELA
SENDERISMOA ALBERGATOKIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

BAZTAN

GIZARTEA → 130 LANGILE DITU ELIZONDOKO KLINIKAK

Benito Menniko zuzendaritzak ez duela negoziatu nahi salatu du ELAk

Langileen Batzordeak ez du mobilizazioak egitea baztertzen

TTIPI-TTAPA

«Benito Menniko enpresa zuzendaritzako ki-deek ez dute negoziatu nahi. Alderantziz, beraien proposamenak ez baditugu onartzen, baldintza okerragoak proposatzeko aukera ez dute baztertzen». Hala xe laburbiltzen du Langileen Batzordeak Elizondoko klinikako egoera eta ikusirik nola dauden, «ez ditugu mobilizazioak baztertzen, eskualde eta inguruko jendar-tean jakin dezan zein egoeratan gauden eta nola ikusi gaituzten zuzendaritzakoek».

ELAk helarazitako oharrak dioenez (130 langile ditu gaur egun klinikak eta 9 ordezkarriak sindikatu horretakoak dira), 2015eko abenduaren 14an izan zuten hitzarmena bertze-lehen negoziaketa bilera. Langileen Batzordeak hitzarmen berri-rako proposamena aurkeztu zuen, eta momentuko egoera ez zela ona argudiatuz, ezin zutela erantzunik eman adierazi zuen zuzendaritzak.

Abenduaren 23an

egindako bigarren bilera batean hasi omen ziren langileak zuzendaritzaren egiazko borondatea ikusten. «Lan erreformak enpresei ematen dizkieten eskumen guztiak erabiltzeko aukera nahi dute, lan baldintzak deusezteza, kaleratze merkeak, sinatzen dutena ez aplikatzea... azken finean, lan prekario bat bultzatzea Benito Mennin», dio ELAren idatziak.

Aurrerapauso nabarmenik ekarri ez zuten bi bileren ondotik, Langile Batzordearen eskareri erantzunez, proposamen berri bat ekarri zuen zuzendaritzak orain arte egin den azken bilerara, otsailaren 18an. 2016ko aurrekontuak eginak dituztela argudiatuz, langileen kostua handitzen den edozer gauzari ezezko borobila ematez gain, orain arteko urteko lanaldia handitzea 2012-2013-kora itzuliz, antzinatasuna ezabatzea... proposatzen du zuzendaritzak.

ELA sindikatuaren erranetan, «langileok urte asko daramagu soldata igoerarik gabe eta azken urte hauetan, enpresako datu ekonomikoei begiratu, irabaziak izan dituen arren, ez dute ikusi eta entzun ere egin nahi langileen kostua handia-gotuko duen ezer».



Ba al zenekien

Baztango Artisauen Azoka martxoaren 25 eta 26an goiz-arratsaldean eginen dela Elizondon.



UTZITAKO ARGAZKIA

Autobusaren zain egoteko etxola egin dute Elbeten

Elbeten haurrak eskolako autobusaren zain egoteko etxola egin du Udalak orain gutxi. Eskaria Elbeteko gurasoek eta herriak egin zuten eta denera 4.400 euroko kostua izan du. Lanak Astiz zurgindegiak eta Arakan erainkuntzak enpresek egin dituzte. Aitzineko urteetan bertze autobus etxolak egin dira. 2014an gartzaindarrek auzolanean bat egin zuten eta 2012an udaletxeko gizarte zerbitzuetako ikastaroan Bergarako auzoan bertze bat egin zen. Ondoko urteetan etxola hauen beharra duten bertze herrietan egiteko aukera izanen da.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Zaindari ikusezina filmerako casting arrakastatsua

Martxoaren hondarrean Dolores Redondo idazlearen eleberrian oinarritutako *El guardián invisible* (Zaindari ikusezina) filmaren errodajea abiatuko dute Baztanen, Fernando Gonzalez Molina nafarraren zuzendaritzapean. Filmeari parte hartzeko aktoreen casting-a egin zuten otsailaren 20an eta jendetza bildu zen Arizkunenea Kultur Etxean. Aktoreena ez ezik, gremioetako lan poltsa ere osatu dute, errodajea egiteko Nostromo Pictures ekoizleak zurginak, margolariak, peoiak, atezainak, zaindariak eta gidariak behar baititu.

GIZARTEA → MARTXOAREN 12AN FINALERDIAK ETA MARTXOAREN 19AN FINALAK

Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketa azken txanpan sartu da



Lehen eta bigarren mailako final laurdenak asteburu honetan jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketa azken txanpan sartua da. Martxoaren 5 eta 6an jokatzekoak ziren final laurdenak, lehen eta bigarren mailan.

Lehen mailan Galarrégi eta Bailon, Plaza eta Mikel Argarateren kontra; Huarte eta Barberena, Etxenike eta Axier Argarateren kontra; Urtasun eta Mujika, Oskariz eta Ballarenaren kontra eta Garaikoetxea eta Jaen, Bidegain eta Meokiren kontra aritzekoak ziren.

Bigarren mailan, Urrutia eta Urrutia, Mitxelena eta Lertxundiren kontra; Irungarai eta Jaen, Elizalde eta Samsiñenaren kontra; Larralde eta Lakosta, Otero eta Alberroren kontra eta Goienetxe eta Apeztegia, Urtxegi eta Plazaren kontra aritzekoak ziren.

Partida hauetako irabazleek finalerdiak jokatu dituzte martxoaren 12an, larunbatean eta finalak martxoaren 19an jokatu dituzte Antxitonea trinketean.



Emma BERTIZ → MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikaslea, Elizondokoa

«Teknika ugari erabiliz, hausnartzen ikasten dugu»

Lehen Hezkuntzako gradua Hezkuntza Bereziko aipamenarekin ikasten ari da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua ikastea? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?

Batxilergoko ikasle aunitzek bezala, zalantzak izan nituen gradua hautatzeko; IVEF eta Magisteritza artean nengo. Nire burua etorkizunean non ikusten nuen pentsatzen hasi nintzen eta... Hezitzaile lanetan ikusi nuen nire burua. Mondragon Unibertsitateaz arras ongi solastu zidaten eta bertan ikasketak egiteko gehien bultzatu ninduen erabiltzen duten metodologia da, ikasleek dugun ahotsa eta indarra eta irakasleekin dugun harreman hurbila.

Nola definituko zenuke ikasketa metodologia?

Teknika ugari erabiltzen ditugu: proiektuak, tailerak, ikerketak, talde lanak... Baina batez ere hausnartzen ikasten dugula errango nuke. Gehienok DBH eta Batxilergoan ikaste memoristikoa erabili izan ohi dugu: irakaslearen azalpena + azterketa "ulertu" eta "ikasi" duzula ebaluatzeko. HUHEZIn, aldiz, zu zara

informazio iturri ezberdinak arakatu behar dituen, informazioa kudeatu eta horren inguruan hausnartuz ezagutza berriak eta iritziak eraikitzen joaten zarena, irakaslea bideratzaile delarik.

Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?

Orain egiten ari garena, Sekuentzia Didaktiko bat sortzea da. Diskalkulia duen ikasle bat gelan dugu eta dituen hutsuneak betetzeko eta gaitasunak gehiago potentzializatzeko helburuarekin sortzen ari gara, beti ere ikasle hau ezberdin ez sentitze arren. Horregatik, metodologia globalizatzaile baten barruan lan egitea erabaki dugu, ikasleak protagonistak direlarik. Komunitatea (herria, gurasoak, bertze gelako ikasleak...) sartu ditugu ere, ikaskuntza esanguratsu bat izan dadin.

Praktikaldiak non eta zertaz ari zaren egiten kontatuko diguzu?

Eskola Publikoa, Ikastola, Behar Bereziko Eskola eta Kristau Eskolan egingo ditut praktikak. Praktikak non egin erabakitzeak aukera ematen digutenez, hezkuntza sistema eta metodologia ezberdinak ikusteko aukera izan dut.

Zer moduz moldatzen zarete talde-lanean?

Denetarik dago. Pertsonak ezberdinak garen heinean, lan egiteko ere ezberdinak gara eta, gauza guztietan bezala, batzuk hartzen duten konpromisoa eta berteena ez da berdina. Ez da erraza talde lanean aritzea, baina ikasi beharra dago!

Zeintzuk dira zure etorkizuneko asmoak?

Lana bada, lana! Bertzela... masterren bat, atzerrira joan... ez dakit.



ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 19 ETA 20AN

Hamargarren edizioa beteko du aurten Titiriteroen Topaketak

16 ikuskizun ezberdin eskainiko dira

Margari eta Koro

Heldu den asteondarrear, 19 eta 20an, ospatuko da Titiriteroen topaketa. Aurtengoa 10. edizioa denez, esfortzu berezia egin dute antolatzaileek, eta denetara 16 espektakulu desberdin eskainiko dira. Horretaz gain, Estefa eta Mikelek sortutako *Sorginak* muntaiaren grabaketa ikusteko aukera ere izanen da (duela 15 urte egin zen azkeneko emanaldiarena).

Hau da programa osoa:

MARTXOAK 19, LARUNBATA

- 11:00: Txotxongilo tailerra (museoko seilarran).
- 12:00: *Tartalo eta sorginak* (museoan).
- 13:00: *Polichinela el napolitano* (museoan).
- 15:00: *Ongi etorri,*

olentzero! (eskolako plazan).

- 16:00: *Basoko ipuintikiak* (museoan).
- 17:00: *Torta y leche* (eskolako plazan).
- 18:00: *Sorginak* proiektzioa (museoan).
- 19:00: *Urrezko sagra* (museoan).
- 19:45: *Piratak* (plazatik lezerat).
- 20:15: *Sorgin haizeak* antzezlan (lezean).
- 21:00: lezetik plaza-rainoko kalejira eta batukada.
- 22:00: *Los pilindrajostxotxongilo punk.*
- Kontzertua Toomaxak, Ostion, eta Edozein taldeekin.

MARTXOAK 20, IGANDEA

- 10:30: Antzerki txokoa (museoko seilarran)
- 11:30: *Kirikiñolandia* (museoan). *Azken portua* (frontoian). *Guille y el mordisco del vampiro* (plazako xapitoan).
- 13:30: *Sorginak*

proiektzioa (museoan).

- 14:30: Herri bazkaria
- 16:00: *Bertitzeko titiritoroak* (museoan).
- 17:00: *Sorginak* proiektzioa (museoan).

Aparkatzeko eremua Azketan

Kotxeak aparkatzeko toki eskasia dela eta, udalak bi lur eremu erosi ditu Azketa aldean, eta 70 kotxe sartzeko tokia egokitu nahi du.

Asten Saindurako edekia izateko intensioa da.

Ilar jatea larunbatean

Pittaka-pittaka erroztzen ari da azkeneko urteetan antolatzen den ilar-jatea. Aurten martxoaren 12an egingen da, eta "kontzertu mundial bat" ere izanen dela jakinarazi dute.

10 euro gostatzen da, eta Marixan ostatuan eman behar da izena.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Txotxongilo ikusgarriak izanen dira asteburu osoan.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinearik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

GIZARTEA → EZTABAIDA JURIDIKOA BEHIN BETIRAKO ARGITU ASMOZ

Alkerdiko harrobiaren proiektua ikuskatuko du Nafarroako Gobernuak

Mármoles Baztan enpresari 2013an emandako baimena errebisatzea erabaki du

Iñigo IMAZ

Nafarroako Gobernuak Marmoles Baztan enpresari 2013an emandako baimena errebisatzeko erabakia hartu du. 2013ko urrian onarturiko proiektu berriak eta errestaurazio planak herrian sorturiko egoenezina dela eta, Manu Aierdik zuzentzen duen sailak leherketetan oinarrituriko ustiapenaren inguruko eztabaida juridikoa behin betirako argitzeko asmoz hartu du azken erabaki hau.

AURREKARIAK

2011ko martxoaren 14an, Marmoles Baztan



UTZITAKO ARGAZKIA

SOS Alkerdik 2014an egin zuen prentsaurrekoa, Xaretako Itzulia aurkezteko.

enpresak Alkerdiko harrobiaren ustiapena luzatzeko eskaera egin zuen. Ingurugiro Departamentuak hala eskatuta, enpresak proiektu berria eta errestaurazio plana Urdazubiko Herriko Etxean aurkeztu zuen 2013ko martxoan. Urdazubiko Udalak

Ingurugiro Sailera igorri zuen dokumentua eta Ingurugiro Departamentuak proiektuak lizentzian sartu beharreko aldaketak jakin arazi zizkion Udalari 2013ko maiatzan. Azkenik, 2013ko martxoan, Industria Departamentuak proiektu berria onar-

tu zuen. Haatik, harrobia leherketak erabiltzen hasi eta berehala kezka sortu zen herrian.

Urdazubiko herritarren artean alarma piztu zuten 2014ko uztaileko leherketek, eta ondorioz, Nafarroako Gobernuak leherketak galera-zituen harrobian, Al-

kerdi eta Berroberria lezeak kaltetuak suertatu ziren ala ez argitzeko.

Ondorioz, 2014ko irailean, leherketa proiektu berri bat aurkeztu zuen enpresak. Nafarroako gobernuak bi-brazioen ikerketa bat bultzatu zuen eta, ikerketa horren arabera, lezeak ez ziren kaltetuak suertatuko leherketak erabiltzeagatik. Urdazubiko herritarrek, ordea, ez ziren ados prozesu guzti honekin, eta mobilizazioak hasi ziren ondarea eta herritarren bizimodua defendatzeko asmoz. Herriko Etxean ere bi mozio onartu dira lege gintzaldi honetan, harrobiaren ustiapenaren erabili nahi diren leherketen kontra. Lehena Urdazubi Elgarekin taldeak aurkezturik, eta bigarrena Azkar taldeak proposatuta, SOS Alkerdiren mozio proposamen bat oinarri hartuta.

MARTXOAREN 13AN, IGANDE ARRATSALDEKO 7:30EAN

Oihulari Clown taldearen 'Molestias Clównicas' helduendako antzerki emanaldia ikusgai Kultur Etxean

I. IMAZ

Ugarana Emakume Elkar-teak antolatuta, Oihulari Clown taldearen *Molestias Clównicas* helduendako clown antzerki ikuskizuna ikusgai izanen da martxoaren 13an, igande arratsaldeko 7:30ean Kultur Etxean. Sarrera doan izanen da.

Virginia Imaz da emaku-

mearen eta osasunaren arteko harremana oinarritzat duen antzezlan umoretsu honetako zuzendari, egile eta aktore bakarra eta clownaren parodia egiten du.

Pauxa protagonista osasun kontsultan txandaren esperoan dagoen pailazoa da. Publikoa lekuko eta konplizeztat hartuko du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Virginia Imaz da igandean Kultur Etxean eskainiko den antzezlanaren egile, zuzendari eta aktore bakarra.

SARA

KULTURA → MARTXOAREN 23AN

Hegalaldia proiektuko kontzertua Ihartze artean

Anari taldearekin batera Estatu Batuetako Micah P. Hinson kantaria ariko da

Joana GERENDIAIN

Atabal eta EHZ elkarteek Hegalaldia proiektua muntatu dute, haien helburua izanki Euskal Herriko ezohiko lekuetan kontzertuak antolatzea. Aurten Sarako Usopop elkartearekin harremanetan ezarri dira kontzertu bat antolatzeko Ihartze artea

etxean martxoaren 23an, gaueko 9etan. Gaualdi horretan Estatu Batuetatik etorriko den Micah P.Hinson kantaria entzun ahalko da, baita Anari taldea ere. Sartzea 8 eurotan da eta erreserbak Atabala, EHZ edo Usopop elkartearekin harremanean sartuz egiten dira.

Saint Patrick gaua

Martxoaren 19an Irlandako aire batek Herriko Etxeko edantegia aireztatu du, usaia bat bilakatu da ostatu horretan Irlandako saildu hori gorestea. Arratseko 8etatik 9ak arte *Happy Hour* egiten da eta on-



UTZITAKO ARGAZKIA

Santurtziko Deiedra taldeak Herriko Etxeko Edantegiko Saint Patrick gaua girotuko du.

dotik Santurtzi aldetik heldu den Deiedra folk zeltiar taldeak giroa emanen du.

Sarako Trail

Sara korrika elkarteak bere traila antolatu du martxoaren 27an. Aurten 22,4 kilometra-ko ibilbide berri bat proposatu da, 1.580 mko

desnibel batekin. Izen emaitzak lehenagotik egin behar dira www.sarakorrika.com webgunean, 20 euro balio du.

Pastiza salmenta

Martxoaren 19an, San Josepe eskolak pastiza salmenta bat egingen du plazan, arratsaldeko 5 etatik goiti.

Kirol emaitzak

Otsailaren 20-21eko asteburuan eskubaloian seniorrek 27-21 galdu dute Bordes-ko ekiparen kontra. Errubilariek, aldiz, Labatuteren aurka irabazi dute 32-7. Otsailaren 28an errubilariek berdinketa erdietsi dute Amouko ekiparen kontra, 11-11.

erran
Mendialdeko Albistek
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROKIN irratiak
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

Urteko lehenengo elurtea
Lehiaketa zabaltzeko 2016
Mendialdeko Albistek

Download on the
Google play

Download on the
App Store

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

GERTAERAK → OTSAILAREN 27AN

Uholdeek kezka sortu die Urdazuri ondoan bizi diren herritarrei

Urguri aldean saihebidia hetsi zuen Herriko Etxeak

Franck DOLOSOR

Gan den otsailaren 27an izan ziren uholdeek kezka handia sortu zieten berriz Urdazuri

ibaiaren ondoan bizi diren senpenterrei. Euria jauts ahala egin zuen, Luberriako baraderak pinta ainitz atxiki zuen, baina ur frango etortzen da halere Sara, aintzira eta Amezpetu aldeetatik. Itsaso alderat doan ur guzi hori karrika nagusian biltzen da eta hor gainezka egin zuen ha-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Karrika nagusian urak gainezka egin zuen hainbat tokitan.

inbat tokitan. Agintariak alerta horiaren abisua eman zuten eta urak atera zirelarik Urguri aldean herriko saihebidia hetsi zuen herriko etxeak. Norabide bakarrean den karrika nagusian bi norabideetan ibiltzeko baimena eman zuen auzapezak.

Uholdeek kezka

handia piztu dute berriz bainan aldi huntan uste baino makur gutiago izan da.

Hiru Soinu kantuz

Hiru Soinu herriko taldea herriz herri dabil bere bigarren diska aurkezteko eta ondoko egunetan bi kontzertu proposatuko ditu:

martxoaren 13an Itsasuko elizan 16:00etan eta apirilaren 29an Senpereko elizan 19:30ean. Gure herriko Apel elkarrearen alde eginen da bigarren hitzordu hori. Brave anaiak, Peio Molinier eta Maider Cigarroaren dohaiak preiaztzeko parada izanen da kantaldi horietan.

GIZARTEA → IPAR EUSKAL HERRIAN

Herri elkargo bakarra sortzeko proiektuak aitzina segitzen du baikorki

Lehen galdeketaren ondotik, bozketa loteslea egiteko 75 eguneko epea hasiko da martxoaren 14an

Franck DOLOSOR

Ipar Euskal Herrian herri elkargo bakarra sortzearen proiektuak aitzina segitzen du. Frantziako gobernuak Iparralde mailako lehen egitura sortzearen proposamena egin du 158 herrien artean erdia alde bada eta horiek biztanlegoaren erdia ordezkatzeko badute. Gan den



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Batera plataformaren agerraldia herri elkargoaren proiektua baikorki sostengatzeko.

udazkenean egin zen lehen galdeketa bi baldintzak bete ziren 10 herritatik zazpi alde agertu baiziren eta herritarren %66 ordezkatzeko baitute. Senpereko herriko kontseilua alde agertu zen aho batez. Iritzi soila ematearen ondotik, orain martxoaren

14an bozketa loteslea egiteko 75 eguneko epea hasiko da eta emaitza berak errepikatzen badira 2017ko urtarrilaren lehenean sortuko litzateke Ipar Euskal Herri mailako herri elkargo zabala.

Batera plataforma herriz herri dabil eguno-

tan informazio autobusarekin herritarrei informazioa banatzeko.

ELKARRETARATZEAK

Herritarrek sentsibilizatzeko zonbait elkarretaratze eginen ditu Baterak apirilaren 2an Baionan, Ziburun, Kanbon eta Ozkaxen.



**ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA**

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ♥ ...

**Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425**



EZKONTZAK

Santiago Arretxea Hernandorena eta **Izaskun Maritorena Roldan**, Sunbilla eta Elizondokoa, Sunbillan otsailaren 26an.

Joseba Larzabal Antxordoki eta **Eider Mutuberria Retegi**, Igantzi eta Doneztebekoa, otsailaren 20an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Eider Aioroa Petrikorena, Aurtizkoa, otsailaren 26an.

Aitor Villamea Saralegi, Doneztebekoa, otsailaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Jean Gabriel Quartier, Elizondokoa, otsailaren 19an, 87 urte.

Julian Maia Martikorena, Elizondokoa, otsailaren 19an, 52 urte.

Epifania Zabaleta Gogorza, Leitza-koa, otsailaren 23an, 90 urte.

Martin Elizalde Ruiz, Etxalarkoa, otsailaren 24an, 69 urte.

Isabel Salaberri Ainziburu, Elizondokoa, otsailaren 26an, 97 urte.

Luis Alberto Rey Uriz, Elizondokoa, otsailaren 26an, 84 urte.

Carmen Nemours Ezponda, Elizondokoa, otsailaren 27an, 84 urte.

Juan Otermin Goikoetxea, Leitza-koa, martxoaren 1ean, 92 urte.

Eduardo Migeltorena Andiarena, Sunbillakoa, martxoaren 1ean, 87 urte.

Gérard Demouchy, Sarakoa, otsailaren 20an, 78 urte.

Bernadette Amorena, Sarakoa, otsailaren 14an, 66 urte.



Juan Bautista URROZ EZKURRA

VI. URTEURRENA

Beran hil zen, 2010eko martxoaren 20an,
67 urte zituela

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.*

EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA FAMILIA

Bere aldeko meza martxoaren 20an, 12:30ean
Berako San Esteban elizan.



Paskual ETXEBERRIA UNSAIN

1939 - 2015

*Ikasi eta billutako hitz guziak
ortzileroko guregana ekartzeagatik.*

Eskerrikasko, lagun,

Beti izanen zaitugu bihotzian.

**BERAN (NAFARROA) 2016 OTSAILAREN 29AN
EUSKAL PRESOKA EUSKAL HERRIRA**

Rekordatorioak
egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458

Otsailaren 18tik 21era Holandako Vollandam hirian jokatu den Munduko sokatira txapelketan izan da Lesakako Beti Gazte taldea. Klub arteko txapelketan aritu dira 560 eta

600 kiloko kategorietan, baina dominen borrokatik kanpo gelditu dira. Halere, ez dira esku hutsik bueltatu: Hegoaldeko tiralariek lehen aldiz Euskal Herriaren izenean tiratze-

ko aukera izan dute ofizialki, Basque Country taldearekin eta 23 urtez behetiko kategorian, 600 kilotan zilarrezko domina eskuratu du Julen Palenzuela Etxeparek.

Julen PALENZUELA | Zilarra Munduko sokatira txapelketan

«2018an Txinan jokatu den sokatira Mundialerako gogoz dago Beti Gazte»

A. AROTZENA | LESAKA

Hemezortzi urte berterik ez ditu Palenzuelak, eta 2014ko apiriletik ari da sokatiran. 16 urtera arte pilotan aritzen zen, baina betidanik izan du herri kirolarekiko zaletasuna. Herriko sokatira taldearen entrenamendu batera joan eta animatu zen probatzera: «Hasiera gogorra izaten da, baina pixkanaka ikasten duzu teknika, eta gustua hartzen diozu». Pilotarekin konparaketa eginda argi du sokatira gogorragoa dela: «Pilotan astean pare bat entrenamendu egiten dituzu; sokatiran, soka astean bi egunetan egiten dugu eta gero gimnasia eta fisikoa bertze hirutan. Baina behar bada neretzat gogorra janaria zaindu beharra da, pisuan sartu ahal izateko. Gainera, pilotan egiten ez duzuna bakarrik zuretzako kalte da; sokatiran, zuke egiten ez baduzu taldea izorratzen duzu». Horixe da, aldi berean, sokatiraren xarma, «taldean sortzen den giroa».

Hemezortzi urterekin eta bi urte eskasetan,

PILOTA ETA SOKATIRA

«Pilotan astean pare bat entrenamendu egiten nituen; sokatiran, soka astean bi egunetan egiten dugu eta gero gimnasia eta fisikoa bertze hirutan. Baina behar bada neretzat gogorra janaria zaindu beharra da, pisuan sartu ahal izateko. Gainera, pilotan egiten ez duzuna bakarrik zuretzat kalte da, baina sokatiran taldea izorratzen duzu».

palmares bikaina osatu du Julen Palenzuelak. Joan den urtean, Nafarroako 4x4ko bi txapel eta zortzinaka jokatu zen bakarlarortu zituen, baita Zazpi herrialdeen arteko txapela, Euskadiko launakako txapela eta zortzinakako zilarrezko domina 640 kilokoan. Eta orain, Munduko sokatira txapelketan, zilarrezko domina. «Gehienbat Berriozarko tiralariek osatu zuten taldearen bizkarzurra—dio Palenzuelak—, 5 Berriozarkoak ziren eta horiekin, Sokarriko

bat, Muruetako bat eta ni aritu ginen. Finalean Taiwanen kontra galdu genuen, baina estu hartu genituen. Kontuan hartu han bekak izaten dituztela sokatiran aritzeko eta egunean 5 orduz elkarrekin entrenatzen dutela. Gu, berriz, Holandan bakarrik elkartu gara». Zilarrezko dominarekin kontent da Palenzuela, baina garbi du ez dela bere lorpena bakarrik: «Beti Gazteko taldekide guziena da domina, beraiek gabe ez bainuen lortuko eta duela hiru urte utzi gintuen 'yaya'ri eskaini nahi diot». Esperientzia ederra izan da Holandakoa, nazioarteko lehian, keta batean estreinekoa lesakarrantzat: «Zerbait tiralariren altuera izan da gehien harritu nauena, bi metro luze eta 70 kiloko pisua berterik ez duten gizonak, eta hori abantaila da sokatiran. Gainerakoan, talde gehienek gure estiloa tiratzen dute».

TXINA 2018 JOMUGAN

Bere garaian Munduko txapeldun izanda ko beteranoen eta gazteen arteko nahasketa



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Palmares polita osatu du Palenzuelak bi urte eskasetan.

da gaur egungo Beti Gazteko sokatira taldea. Julen Palenzuela da taldeko gazteena, Xuban Larretxearekin batera, baina zaharrenean arri-moan aunitz ikasten ari dira. «Erraten dutenez, hain gazteak izanik eta hain denbora gutti soka, aunitz hobetzen ari gara eta, noski, oraindik badugu hobetzeko denbora». Alde horretatik, 2018an Txinan jokatu den Munduko sokatira txapelketan ere Beti Gazte izanen dela ez du zalantzarik Palenzuelak: «Mundialaren ondotik, beteranoenek

segitzeko intentzioa dute, eta gazteok ere bai. Bakarren bat gehiago hasiko balitz, taldearentzat hobe. Batzuk erranen dute 45-47 urterekin zaharrak direla, baina Irlanda eta Ingalaterrako taldeetan badira 50 eta 60 urteko tiralari aunitz, baita 70 urteko bakarren bat ere. Horien ondoan gaztetxoak dira gure beteranoenak ere!». Orain, aste pare bateko deskantsuaren ondotik, apirillean edo maiatzean jokatu den Nafarroako lauoko sokatira txapelketa prestatzen hasiko dira.

HERRI KIROLA → OTSAILAREN 21EAN

Australiarra da Munduko aizkolari azkarrena

Melbourneko Lawrence O'Toole nagusitu da Tolosan

TTIPI-TTAPA

Aizkolari Azkarrena Munduko Aizkolari finala jokatu zen otsailaren 21ean Tolosako Beotibar pilotalekuan. Mundu osoko hamasei aiz-

kolari izan ziren lehian, eta horien artean, Munduko txapeldun den Lawrence O'Toole australiarra suertatu zen garaile. Munduko txapeldunaz gain, Italiako Paolo Vicenzik, Suitzako Christophe Geissler-ek, Frantziako Pierre Puybaret-ek eta Espainiako Jon Rodriguez segoviarrak osatu zuten nazioarteko partaidetza, Euskal Herriko bertze



ARGAZKIA: XAGU-LESAKA

Lawrence O'Toole australiarra txapelarekin, finalean aritu ziren bertze hiru aizkolariekin.

zenbait aizkolariekin batera (tartean, Hegoaldeko lau herrialdeetako txapeldunak).

Melbournekoaren ondotik, Iker Vicente Nafarroako txapelduna izan zen bigarren finalean, 40 segundora; Bizkaiko eta Euskal Herriko txapeldun den Aitzol Atutxa II hirugarren

(51 segundora) eta Jon Rekondo leitzarra laugarren (61 segundora). Rekondorekin batera, Leitzako Ruben Saralegik, Arantzako Donato Larretxeak, eta Sunbillaiko Felix Etxeberriak osatu zuten eskualdeko ordezkariak, baina ez zuten azken txanparako sailkatzerik izan.

BINAKAKO URREZKO AIZKORA

Urrezko Aizkolariak Binakako aizkora txapelketaren finalean, berriz, Atutxa II eta Murgertza II nagusitu ziren. O'Toole eta Iker Vicente bigarren izan ziren eta Ruben Saralegi eta Jon Rekondo leitzarrek hirugarren.

MENDI LASTERKETAK → MARTXOAREN 14TIK AITZINERA

Berako Mendi Maratoi Erdian izen emateko epea irekiko dute

525 dortsal jarriko dira eskuragarri

TTIPI-TTAPA

Berako Mendi Maratoi Erdian izen emateko martxoaren 14tik aitzinera egiten ahal dira goizeko 9:30etik aitzinera www.kirolprobak.com webgunearan bidez. Azken urteetan bezala 525 dortsal jarriko dira eskuragarri. Federatuek 28 euro ordaindu beharko dituzte eta fede-

ratuta ez dauden korrikalariak 32 euro.

MENDI GALAN SARITUAK

Manttalet azaroaren 1ean Izagondoko lasterketan lortutako Nafarroako taldekako txapeldunaren txapela eta trofeoa jaso zituen otsailaren 19an. Aimar Zubietak jaso zuen saria, Iñaki Larrañaga, Maddi Sotil eta Juanra Pikabea Manttaletako lasterkariek lagundurik, Nafarroako Mendi Federazioak Iruñean os-

patutako galan. Txus Unsió Manttaletako korrikalariak Xabier Zubietak saria jaso zuen, Nafarroako Kopako mendi lasterketarako parte hartzaile beterranoena izateagatik. Bertzalde, Xabi Macías Cipriainek Luis Mari Pikabea saria jaso zuen, korrikalari gaztearen emandako saria.

Nafarroako Kopako beterranoen sailkapen orokorrean Josema Hui-zik bosgarren bukatu zuen, hirugarren postu-



UTZTAKO ARGAZKIA

Federazioaren Galan, Nafarroako taldekako txapeldunaren saria jaso zuen Manttalet, bertze zenbait sarirekin batera.

24 puntura. Txus Unsiónek zazpigarren bukatu zuen.

MENDI LASTERKETETAKO SELEKZIOA

Nafarroako Federazioak aurten mendiko lasterketarako Nafarroako selekzioa sortuko duela jakinarazi zuen, selekzio hau 8-9 korri-

kalariz osaturik egongo da, korrikalari hauek batzorde batek erabakiko ditu, hiru lasterketetan egindako parte hartzea baloratuz, hala nola, apirilaren 17an izanen den Berako Mendi Maratoi Erdian, Jurrandi Trail Montejurra eta Xtreme Higa de Monreal.

PILOTA → OTSAILAREN 27AN JOKATU ZEN FINALA

Irurita Bk irabazi du XVI. paxaka txapelketa

Aranabian 9-5 irabazi zion Irurita Cri

TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako paxaka txapelketaren hamaseigarren edizio-ko finala jokatu zen otsailaren 27an Iruritako Aranabia pilotalekuan. Herriko bi talde izan ziren aurrez aurre eta azkenean Irurita B (Gor-

ka Urtasun, Karlos Goi-koetxea eta Jon Saniñena) 9-5 nagusitu zitzaion Irurita Cri (Iñaki Etxandi, Guillermo Etxenike eta Mitxel Etxenike).

Nahiz eta azken emaitza nahiko argia izan, Irurita B taldearen garaipena ez zen bate-erraza izan, joko guztiak arras borrokatuak izan zirelako. Galtzailek emaitza hobea me-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Paxaka txapelketaren sari banaketa. Beheitian txapeldunak.

Patxi Barberena eta Miguel Angel Iñarrea). Honetan, espero baino lehia gutiago izan zen eta Irurita D 9-2 nagusitu zitzaion Irurita Fri.

Txapelak eta sariak Pello Obregozo Iruritako alkateak banatu zituen eta Iruritako Gure Kaiola elkartearen 30 lagun bildu ziren afaltzen.

PILOTA → OTSAILAREN 20AN DONEZTEBEN

Malerrekako eskuz binakako XIV. pilota txapelketako finalak bikainak

Zazpi kategorietako azken partidak jokatu ziren Ezkurra pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 20an jokatu zituzten Erreka el-

karteak hamalagarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak Doneztebeko pilotalekuan. Aurten ere partida guztiak goizez jokatu zituzten, eta partiden ondotik, pilotari, antolatzaile eta laguntzaileak Santamaria jatetxean egindako



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Malerrekako pilota txapelketan parte hartu zuten pilotari, antolatzaile eta laguntzaileak.

bazkarian bildu ziren.

Hauak izan dira finalerako emaitzak:

Benjaminak: Babarro eta Ibarluzea (Urretxu), 18 – Sarratea (Erreka) eta Sanchez (Oberena), 9.

Alebinak: Amiano (Añorga) eta Ardaraz (Zeanuri), 8 – Olaizola eta Orbegozo (Añorga),

18.

Infantilak: Arandia eta Larrazabal (Amurrio), 12 – Peso (Errioxa) eta Alberdi (Ilunpe), 18.

Kadeteak: Eiguren (Ilunpe) eta Murua (Arrasate), 18 – Telletxea (Erreka) eta Apezetxea (Umore Ona), 5.

Jubenilak: Salaberria eta Mariezkurena (Erre-

ka), 18 – Aurrekoetxea eta Martitegi (Lemoa), 4.


Bigarren mailako seniorrak: Matxin eta Azketa (Zegama), 6 – Zubizarreta eta Garmendia (Lapke), 22

Elite: Bakaikoa eta Lasa (Erreka), 13 – Labaka (Zazpiburri) eta Tabar (Erreka), 22.

martxoak 10 - 24

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eu edo 948 63 54 58

Lehiaketa



BERA | 2016.03-2016.04.14

'Irakurketa instant batean' argazki lehiaketa martxan

Irakurketaz edozein euskarri, ingurune, adinetan... gozali tekeela irudikatzen duten argazkiak aurkeztu beharko dira. Apirilaren 14ra arte dago epea zabalik.

Kirola



DONEZTEBE | 2016.03.30

Mieltxo Mindegia eta Eneko Otañoren arteko aizkora apustua

Ezkurra pilotalekuan 12:00etan hasiko da norgehiagoka. Hamabi kana-erdiko eta lau 60 ontzako moztu beharko dituzte. 6.000 euro daude jokoan.

Antzerkia



IRURITA | 2016.03.20

Emakume politikoki ez-zuzenen istorioak taula gainean

Uxue Alberdiren *Euli giro* liburua oinarri hartuta, izen bereko antzezlan landu du Kamikaz kolektiboak. Gizarte Bilgunean izanen da ikusgai 19:00etan.

Martxoaren 12an Harriondoan, 20:00etan.

Filmak

ARESO

'Coria eta itsasoa'

Martxoaren 11n 19:00etan Udaletxean.

ARANTZA

'Neskatoak' dokumentala

Martxoaren 12an Baskulan, 19:30ean.

LEITZA

'3 corazones'

Martxoaren 13an 19:30ean, zineman.

BERA

'Loreak'

Martxoaren 20an Beralandetan 19:00etan.

DONEZTEBE

Bi film ikusgai

Martxoaren 20an *Pan* (16:30) eta *Bad teacher* (18:30).

Bakarrizketak

SUNBILLA

Gilaren bertsioak

Martxoaren 11n Etxenikeren eskutik, Bustitz ostatuan 22:00etan.

Bertsolaritza

BERA

Berto bazkaria

Martxoaren 12an Onintza Enbeita eta Nerea Elustondorekin, Zalain jatetxean.

Dantzak

ELIZONDO

Bailableak

Martxoaren 13an herriko plazan 12:45ean.

LEITZA

Aurrerako dantzariak Korrontzi dantzan

Martxoaren 19an Kirodegian, 20:00etan.

Erakusketak

BERA

'Ekinox'

Martxoaren 20tik apirilaren 3ra Agurtzane Anduetzaren lanak ikusgai Kultur etxean asteartetik igandera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00 (igande arratsaldetan itxita)

Tailerrak

LEKAROZ

'Bizentaren lumak solas-jolasa'

Martxoaren 17an Lekarozko batxilergoko 2. mailako ikasleendako.

BERA

'Talo tailerra'

Martxoaren 16an 11:00etatik 13:00etara.

GOIZUETA

'Zaintzaileak zaintzen'

Martxoaren 14an 17:00etatik 19:00etara, Marian Zestauren eskutik.

Hitzaldiak

DONEZTEBE

'Gurasook esan behar ez ditugun esaldiak'

Martxoaren 10ean Herrikoaren eskutik. 14:55ean eskolan.

BERA

Nafarroako Esnearen Ligaren baitan bilera ireki eta doakoa

Martxoaren 14an *Nola lagun diezadake nire bikoteak haurraren edoskitzearekin? Bikotekidearen rola*, 17:00etan.

LEITZA

'Amatasuna eta feminismoa: harreman ezerosa ote?'

Martxoaren 16an Irati Fernandezekin, Ateka-beltz herrigunean, 19:00etan.

Antzerkia

BERA

'Susanaren iraultza'

Martxoaren 11n Kata-kun, 20:30ean.

ERRATZU

'NomoFobiKak' antzerki emanaldia

Martxoaren 11n Zubipuntan, 21:00etan.

ETXALAR

'Hartza izan nahi zuen mutikoa' antzezlan

Martxoaren 11n Kultur Etxean 17:00etan.

IRURITA

'Futbolariak eta printzesak' antzezlan

Martxoaren 16an LHko 4. eta 5. mailako ikasleentzat Gizarte Bilgunean, 11:00etan.

'Euli giro' helduendako antzezlan

Martxoaren 20an Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

LESAKA

'Bertso Atabikoak' antzezlaren bigarren emanaldia

PROPOSAMENA

ZUGARRAMURDI

Titiriteroek alaituko dituzte karrikak

Festa girorik ez da falta martxoaren 19 eta 20an Zugarramurdi. Euskal Titiriteroen topaketa ospatuko da bertan eta aurtengoa hamargarren edizioa izaki, egitarau oparoa dute prest: 16 ikuskizun, batukada, kontzertuak, tailerrak... eta karrikak kolore eta forma berezietako pertsonaiez bete eta irudimenez jositako istorioak entzuteko aukera izanen da edozein txokotan.



Kontzertuak

DONEZTEBE

Mendi Abesbatza

Martxoaren 11n
Herriko Ostatuan.

Iruñeko orfeoi ttikia

Martxoaren 19an
Elizan 20:00etan.

LESAKA

Lesakako musika banda

Martxoaren 18an
20:30ean udaberriko kontzertua Harriondoan.

Txamukos mariatxi taldea

Martxoaren 19an,
Harriondoan, diska berriaren aurkezpena.

SARA

Deidra taldearen emanaldia

Martxoaren 19an
Herriko Etxeko edantegian 21:00etan.

Anari eta Micah P. Hinson zuzenean

Martxoaren 23an
Ihartze artean,
21:00etan.

Ikuskizunak

DONEZTEBE

Ene-kantak: Baletz dantzan hasi!

Martxoaren 13an
kiroldegian, 17:00etan.

Ospakizunak

ZUGARRAMURDI

Titiriteroen topaketa

Martxoaren 19-20an.
10.urteurrena ospatzeko egitarau zabala.

SUNBILLA

Malerrekako eskoletako VI. Joku topaketak


Martxoaren 22an.
Egun osoko besta.

Lehiaketak

LESAKA

Sanferminetako kartel eta portada lehiaketa

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



Gauero zaintzailea

JULEN BELAMUNO

Elkar, 2016

Adinean sartuxea den gizon bat, ez lagunik, ez familiarik, ez zaletasunik... bere lanbidea, bertzerik ez: gaueko zaintzailea da aluminio-fabrika batean, bere aita izan zen bezala, eta gauero eginkizun eta pauso berberak errepikatzen ditu zehaztasun maniatiko, ia milimetrikoz. Segurtasun-sistema berriak ezarriko dituztela-eta, kalean geldituko da zaintzailea. Gaur du azken gaua, eta ohiko legean hasi du ibilbidea, lantegiaren txoko guztiak, bazter bakoitza ikuskatuz. Horrekin batera, bere bizitzaren erreposoa eginen du, eta grisaren ñabarduren antzera deskubrituko dugu urteen monotonian gordetako misterioaren distira. Norbaitek errana da bizitarik gatzbakoenak ere nahikoa joko ematen duela argumentu baterako, horretarako aski talentu izanez gero. Erronka horri eutsi eta garaile atera da idazlea, ohiko idazkera mirresgarria koxka bat estuago landuz eta gogoan geldituko zaigun pertsonaia patetiko marraztuz.



Musika


GARILAK 26
adrenalinaren zain

Adrenalinaren zain

GARILAK 26

Baga-biga, 2016

Garilak 26 erromeria talde bizkaitarraren lehen-dabiziko diskoa da *Adrenalinaren zain* eta sei abesti berriekin batera, Eguzkizaleak Bilboko kompartaren 25. urteurrena ospatzeko propio egindako *Mende laurden* abestia ere bildu dute. Garilak 26 taldeak rockaren doinu zabalak landu ditu diskoan baina beti Euskal Herrian bereziak diren hiru musika-tresnek gidatuta: trikitixa, alboka eta albokotea. Trikitixa eta abokaren doinuek euskal musika tradizionalarekin lotura ematen diote taldeari, eta hori da euren musikaren abiapuntua herri-herri defendatzeko euskal tradizioaren ikuspegi rockaren jarrerarekin nahastua. Sei lagunek osatzen dute gaur egungo taldea: Joanes Garmendia (baxu-jotzailea), Ieltxu Gimenez (bateria), Maria Lazkano (abeslaria), Eneko Benito (alboka eta albokote jotzailea), Iker Alvarez (gitarra) eta Josu Elordui (trikitixa). 2011n taldea sortu zenetik 150 zuzenokotik goiti egin dituzte plazaz-plaza.



Internet

Euskararekin gozatu bidenabar, irakurzaletasuna bultzatzeko

WWW.AIRAKURRI.COM

Euskararekin gozaten asma dezaten eta ikasle berrientzat euskara eskolako gela eta ikaslanteko tresna eta modu soil gerta ez dadin, Airakurri proiektua paratu dute abian, DBHko 2. mailako ikasleei zuzendua. Zaletasunak lantzeko adin egoia izan daitekeelako eta gainera, horrela, ekimenak jarraipena izan dezakeelako hurrengo ikasmaitetan. Ikasleei irakurketa plazer iturri gerta dakien lagundu nahi du proiektuak. Horretarako, ikasleei irakurri dituzten euskarazko liburuek sorrarazitako burutazioak elkarri lutzatzeko bidea ireki dute. www.airakurri.com webgunean irakurritako liburuen iruzkinak sar ditzakete, eta ikasle irakurlerik saiatuena-ri, sari moduan liburu-sorta eta tableta emanen zaio.

Martxoaren 18ko

13:00 arte aurkezten lanak.

BERA

'Irakurketa instat batean' argazki lehiaketa

Apirilaren 14ra arte
aurkez litezke lanak.

Kirola

IGANTZI

Gladiators Day

Martxoaren 12 eta 13an
Irisarrianden.

DONEZTEBE

Aizkora apustua

Martxoaren 20an
Mieltxo Mindegia eta Eneko Otaño aurrez aurre. Ezkurra pilotalekuan 12:00etan.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldiak

Martxoaren 13an
eskolatik Artzamendira,
07:30ean abiatuta.

Martxoaren 20an
Artesiagatik Saioara,
08:00etan abiatuta.

DONEZTEBE

Xabierraldira ateraldia

Martxoaren 12an
autobusa Iruñeara.

ARANTZA

Lan gaua ibilaldi gidatua

Martxoaren 19an
Bidasoko kontrabandisten Bidea Elkarteak antolatuta.

LESAKA

Zarautz-Deba

Martxoaren 20an Beti Gaztek antolatuta.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu: **erran.eus**

ETXEBIZITZAK
salgai

ORONoz-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.


URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobilizatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. ☎646 774117.

ELIZONDO. Herri erdian, Maria Azpilkueta karrikan, 3 logela, sukalde, egongela, bi balkoi, komuna, trastelekua eta kotxea aparkatzeko lekua aterpean. Egoera onean. Deitu eta ikusi konpromisorik gabe. ☎687 661251.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ELIZONDO. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa, 1. solairuan. Hall, 2 logela, 2 bainugela, egongela handia, sukalde ederra eta ekipatua. Balkoia eta 15 m²ko sabaia. Kalefakzioa berritua (gas naturala eta kondentsaziozko galdara berria). Pisu azpian garajea edukitzeko aukera. Toki lasaia eta erdigunetik 3 minutura (Pau-larena zonaldean). Interesatuei argazkiak igorriko dizkiet. Deitu lasai konpromisorik gabe. ☎609 004983.



BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua

dago, sukalde estreinatua gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gas-tu gutxi ditu, atezainarekin. Prezioa 140.000 euro. ☎608 777926

ETXEBIZITZAK
erosi

LEITZA. Baserri bat elkarrekin erosteko jende bila gabiltza. Gu bikote gazte bat gara. Interes dutenek deitu ☎616 484498 edo idatzi mezua mail.leitzanbaserria@hotmail.com helbidera.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. Egoera oso onean. Leku ederra. ☎659 489140.

URDAZUBI. Plazan pisua errentan emateko. Bi logela, sukalde-jangela ederra eta bi bainugela. ☎659 849570.

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, sukalde des-pentsarekin eta egongela. Eguzkitsua. ☎637 289103.

BERA. Altzaten pisua errentan emateko. 4 logela, bainugela, sukalde eta egongela. Bista ederrekin. Leio handia egongelan. Txukuna. ☎678 947804.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESKA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi du. ☎642 993776.

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartu nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593

BERA. Bikote batek etxebizitza bat errentan hartu nahi du. ☎680 745698 / 650 847071.

ETXEBIZITZAK
konpartituak

Elizondon bizi garen 24 urteko bi irakasle gara eta libre daukagun logela alokatzeko pisukide bila gabiltza. Prezioa 200 euro hilean gastuak barne. ☎689 765896.

GARAJE/LOKALAK
errentan emateko

LESKA edo inguruan arte eta artisautza tailerra montatzeko bajera edo lokal bila alokairuan hartzeko. Handi xamarra bada hobe. ☎645 013213.

BERA. Legia karrikan garaje bat errentan emateko. 50 m²koa. ☎686 990087.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

ARANTZA. Lur eremuak salgai, Emizarreta, Bordalarrea eta Egibeltza parajeetan. Katastroko datuen, tipologiaren eta azaleraren inguruko informazio gehiago: *albismendi@gmail.com*.

LURRAK/ORUBEAK
errentan hartzeko

Bikote gazte batek proiektu autogestinatua bat aurrera eramateko, **lursail bat** alokatu nahi du, baserri edo bordarekin. Ura eta sarbidea autokoz. Zonaldeak berdin du. ☎699 286251 / 686 433133. *alaintxoftxof@gmail.com*.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 38 €

Zerri gizena
0,960 € kiloak.

Zerramak:
0,540 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,98
1.koa 3,75
2.koa 3,55
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberrak: 3,03/3,13

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,80/6,80

8-10 kilokoak: 5,00/5,40

ZERBITZUAK
denetarik

Arreta. Jaiotza edo erlijio irudiak zaharbertzen ditut. ☎647 293044.

Etzetresnen konponketak
BAGUZI
-Labeak
-Su plakak
-Telebistak
-Hozkailuak
-Garbigailuak
-Plater garbigailuak
629 950 269

ZERBITZUAK
ile-apaintzaileak

Etzex-etxe ile-apaindegi zerbitzua eskaintzen dut. ☎680 268131 (Mari Luz).

ZERBITZUAK
klase partikularrak

Ingelesko eta txinerako klaseak ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle titulatuak eta atzerrian ibiliak. ☎600 309807.



ZERBITZUAK
psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA
eskariak

ESKUALDEA. Emakumea lan bila. Administraziozko ikasketak eta beste hainbat alorretan lan esperientzia daukat: ostalaritzan bereziki, saltzaile bezala, garbiketalanetan... Sektore hauetan guztietan lan egiteko interesatua nago. ☎639 692343.

Interna moduan adinekoak zaintzen esperientzia eta erreferentziak dituen emakumea lan bila dabil, orduka edo

interna moduan aritzeko. ☎618 081748.

LANA
eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

Irakasle bat behar da klase partikularrak emateko, DBHko 4.mai-lako ikasle bati. ☎605 811507.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean zerbitzaria behar da, frantses pixka bat dakiena eta esperientzia duena. 10:00etatik 18:00etara lan egiteko. ☎948 599009/ ☎948 599146.

ZUGARRAMURDI. Zerbitzaria behar da osatu batean lan egiteko. Egunez aritzeko astez edo asteburuetan. Interesatuak deitu 10:00etatik 16:30era, Anabel edo Elenaz galdetu. ☎948 599022.

DONAMARIA. Donamariako Bentan egun osoan lan egiteko zerbitzaria behar da, lan egiteko gogoa duena. ☎948 45070ra deitu edo idatzi: info@donamariako.com.

IBARDIN. Benta Migelen esperientzia pixka bat duen sukaldari-laguntzailea behar da. ☎948 631394.

IBARDIN. Beola Etxea Bentan astelehenerdik ortziralera, egun erdiz lan egiteko administraria behar da. Bidali curriculum-a: beolaetxea@gmail.com.

MOTORRAK
salgai

Peugeot 406 Turbo Diesel Coupe autoa salgai. 121.700 kilometro. ☎948 393041.



Seat Leon FR autoa salgai, HXS matrikula, 2014ko ekainekoa. 150 zaldi. ☎679 828780.

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0
VW PASSAT VARIANT HIGHLINE
2012 URTEKOA - 2 UNITATE

CITROEN C3 DIESELA
2009 - 51.000 KM

FORD TRANSIT CONNECT
2012 - 3 UNITATE

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

ANIMALIAK
salgai

Zerri bat salgai. 140 kilo ingurukoa. ☎669 686626.

OIZ. Ahari muturgorria salgai. ☎606 019337.
Samen arrazako **bisitarako antxumeak** eta Limusina arrazako **bigantxak** salgai. ☎686 927911.

ANIMALIAK
oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko aita artzai zakurra (oso ona) eta ama ere oso zintzoa. ☎650 797669.

DENETARIK
salgai

Oso egoera onean da goen **esne tankea** salgai, hapy markakoa da eta 550 litroko kapazitatea duena. ☎638 332556.

Tailatutako egurrezko bi kutxa salgai. Oso egoera onean. 1,45 metroko luzera, 50 zentime-

troko zabalera eta 80 zentimetroko altuera dute. Bakoitzak 600 euro. ☎655 918483.




Insa special track **takodun gurpilak** salgai, 100 KM bakarrik eginak. 235/70/R16. 280 euro. ☎ Whatsapp: 646 308354.

ORONAZ. Egurra xehetua salgai. Paga eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Lirika markako **piano klasikoa** salgai. Egoera onean aurkitzen da. Bizkaian dago eta errolearen kontu izango litzateke garraioa. ☎645 725841.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak,

SANTESTEBAN TAILERRAK

MEGANE IV ZEN dci 110 CV
Kilometro Zero- estreinatua gabea.
16.950€
LATITUDE PRIVILEGE
DCI 150 CV
47.000 km
Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

BERA. Erlauntzak salgai. ☎948 630079.

Akaziako piketeak salgai. ☎667 885749.

Ohatze litera salgai. Haur edo gazteendako 3 ohatze ditu. Bi ateko armairua ere bai. Egoera onean. Merkea: 260 euro. ☎609 004983.



DENETARIK
erosi

Erremolkea erosi nahi nuke, **bobinak eramatekoa** balitz hobe. 2000 eta 2004 urte artekoa. ☎642 993776.

hemen
agertu
nahi duzu?

egin zure erosketa
erran.eus en
IRAGARKIA

2 aldizkaritan eta interneten

10
EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



MIRIAN LIZARDI beratarrak 40 urte bete ditu otsailaren 26an. Zorionak eta Urte berri on lagunere partetik. Agur!



Arantzako **ALAZNE BALEZTEÑA GOÑIK** 4 urte beteko ditu martxoaren 14an. Zorionak familia guztiaren eta batez ere Aiert anaiaren partetik.



Martxoaren 18an Labaiengo **ANE TELLETXEA ITURRALDEK** 14 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik. Egun polita pasa.



AMETS BARAIBAR ALUSTIZAK 2 urte beteko ditu martxoaren 17an. Zorionak familia guztiaren partetik. Segi beti bezain alai! Muxu handi bat.



Leitzako **OIHAN BARAIBAR LOIARTEK** martxoaren 18an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



Zorionak **PEDRO AGUERREBERE!** Otsailaren 22an urteak bete dituzulako, familia guztiaren partetik baina bereziki zure biloba Aiora eta Oinatzaren partetik. Aunitz maite zaitugu.



Goizuetako **XANTI** eta **PAKITARI** zorionak zuen Urrezko Ezteietan, familia guztiaren partetik. Eskerrik asko zareten bezalakoak izateagatik.



Zugarramurdiko **JOKE ANGEL OLAIZOLA ESPELOSINEK**, martxoaren 1ean urteak bete zituen. Aunitz urtez eta segi horrelako zikiro goxoak prestatzen. Urdazubiko familia eta bereziki zure iloba Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



XUBAN ARREGI MUTUBERRIAK urtea beteko du martxoaren 19an. Zorionak Leitzako attun-amona eta osabaren partez. Bazkari goxoa prestatu!



Gure ponpoxok urtea beteko du martxoaren 19an. Zorionak Goizuetako osaba-izeba eta bereziki Oinatzaren partez. Tartaren zain geratzen gara.



XUBAN ARREGI MUTUBERRIAK urtea beteko du martxoaren 19an. Zorionak gurasoen partez muxu potolo bat. Ongi pasa eguna!



Aunitz urtez **LAUKOTE!** Martxoan sartuta, a zer pagotxa gurea, gosaririk ez zaigu faltako! Ongi pasa zuen urtebetze egunak!



AROA LARRETXEA DE MATEOK martxoaren 11n, urteak beteko ditu! Aunitz urtez lehengusuen partetik! Ongi pasa sorgintxo!

argazki soila

5

EURO

argazki bikoitza

10

EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberako bilaketak egiteko aukerarekin

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

- 🏠 Albisteak
- 📅 Agenda
- 👥 Komunitatea
- 📺 Xorroxin online
- 📄 Eguraldia
- 📄 Merkatu ttikia
- 👤 Urtebetetzeak
- 📺 Bideoak
- 🖼️ Galeria

bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena



FINALA
MARTXOAREN 19AN,
ETXARRI-ARANAZKO FRONTOIAN
HIRU TALDE, BEDERATZI BERTSOLARI

antolatzailea



nafarroako
bertsozale
elkartea

laurunkailea



ttipi-ttapa

Informazio osoa eta sarrerak

WWW.BERTSOZALE.EUS

HIPERSIMPLY NAFAR MENDI

**AUTO & MOTO
ZOKKETA
2016 KO APIRILAK 23**



**Konpetizioko
Moto ttikia**



Ford KA



ttipi txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus



ZOZKETAK

Martiko - Lotea
Kontxesi Arangoa | ETXALAR
Buatxabal - kamiseta bat
José Antonio Loiarde | ZUBIETA
Lesakako Udal Kiroldegia - 2 sarrera
Aritz Perez | BERA
Erein argitaletxea - Liburu bat
Txomin Ariztia | ARIZKUN

Erein argitaletxea - Liburu bat
Francisco Barberena | IRURITA
Mauka musikagintza - CD bat
Jose Joakin Mutuberria | NARBARTE
Mauka musikagintza - CD bat
Belen Juanikorena | IRUNA
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
M^a Jose Agerrebere | ELIZONDO

656.
aleko irabazleak

BAZTAN ABENTURA PARK
ELIZONDO
2 sarrera
ARROIL AQUAPARK NATURALA
BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera
ZUGARRAMURDIKO LEZEA
SARRERA
www.turismozugarramurdi.com

ARKUPE
Gozotegia · Txokolategia
TXOKOLATE LOTE BAT
ARKUPE GOZOTEGIA
www.arkupegozotegia.com

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es
2 sarrera
Heldu bat eta gazte bat

KAMISETA BAT
ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

SARRERAK
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com
2 sarrera

LIBURUAK



- Maitasun sua - Aitor Arana
- Haizearen izena - Antton Kazabon
- Kilimanjaroko diamantea - Yoseba Peña



DESKONTUAK %



BERA | %5, kirol artikuluetan



ELIZONDO | %10, batera eta amortiguadoretan



DOMESTEBE | %10, pijama eta baruko arropetan



LESAKA | %10, eskeletan



IGANTZI | %50, sarreran eta %20, tirolinan eta penduloetan



BERA/LESAKA | %10, matrakulan